

Arrasate

UP RE S S U

1998ko
azaroak 29
342. zenb.

20 urte
Arizmendiarieta
barik

*"Ogibidea izateko lana
bear dogunok egunean
baño egunean
Askatasunari garrantzi
andiagua emongo
dautzagu. Baña bestetik
Askatasuna geruago ta
urrunago izango dogu
alkartasunari gogoz
eltzen ez badautzagu"*

José María Arizmendiarieta

30 GALDERATAN: BEGO ZUBIA ♦ KULTURA: JOSE ANTONIO ASPIAZU
KIROLAK: ASIER GONZALEZ ♦ IKUSPEGIA: ITXARO ARTOLA ♦ IRITZIA: DOMI KORTA



*Orain Aldibirekin
etorkizuna gertuago.*

Aldi **bi**

**ETORRI.
EZ ZARA DAMUTUKO.**

Zigarrola, 1 • 1. pabilioia • ARRASATE
Tel.: 71 20 02

INEM, zu hor eta ni hemen

Laster izango ei dugu berriro gurekin ditxosozko INEM. Garaia bazelakoan, pozik hartuko zenuten askok albistea eta, zer esanik ez, langabezian eta Eibarrera bueltak ematen nazkatuta bazaudete. Niri, berriz, Geltoki zaharraren aferean enplegu erakundeak iruzur, txantaia egin digula iruditzen zait.

INEMen eta Udalaren arteko harremana iaztik hona nabarmen mikaztu bada ere, ezin esan sekula guztiz goxoa izan denik. Garai batean, INEMek, bulegoak jartzen dituen beste tokietan bezala Arrasaten ere egoitza propioa eraikitzeo asmoa azaltzen zuen. Gero, eraikina egiteko ideia bazterten hasi ziren INEMeko buruak, Bodeguillatik horretarako



Itxaro Artola

ezta txakur txikirik ere ematen ez zietela argudiatuz eta, honela, Udalak alokatu eta egokitutako lokalak okupatzen jarraitu du gaurdaino. Edozein modutan, azken hika-mikekin dibortziatzeko puntuan egon da bikotea. Izan ere, ez ziren gutxiagorako INEMen

mehatxu eta kasketaldiak.

Antigoaleko tren-geltokia ordenamenduz kanpo zegoen, hau da, lurzoruairen premia egon zitekeen edozein momentutan botatzeko.

Halako batean, baina, eraikina zaharberritze-ko "proposamena" heldu zen Udaletxera. Ordurako INEMek eta Mankomunitateak guztiz adostuta zeukaten proiektua eta Udalak onartu baino beste irtenbiderik ez zuten izan. Onartu, eta

satorzuloan sartu.

Emaitza, dozenaka milioi herriko elkarteei txoko duin bat ematerik ez daukan Udalaren kontu, zertarako eta INEMek, hirukoaren onespenerekin, bere kapritxoak asetzeko. (Azkena, pibote defentsiboena, demasa izan da).

Badakit lana daukanaren arinkeriaz epaitzen dudala akaso eta enplegu erakundeak bizi kalitateari mesede egin diezaiokeenik ez dut ukatuko, hala ere ez daukat garbi horrela umiltzea ezinbestekoa ote zen. Ezin da ahaztu iaz Eibarrera joan ez zedin toki alternatibo eskaini zitzaioela, baina, "bere kategoriako egoitza bat" eman arte ez zela itzuliko erantzun zuela. Gainera, enplegu zerbitzuak liberalizatu eta, ondorioz, ETT, Langai eta antzerakoak ugaritu direnetik marko administratibo eta funtzional berria dihardu INEMek eta oraindik bere etorkizuna erabakitzeke du gobernuak.

Nire esku balego, txakurraren salara, oiloak perratzen joatea zeukan INEMek. ■

"Geltoki zaharraren aferean enplegu erakundeak iruzur, txantaia egin digula iruditzen zait"

342. zenbaki honetan

1996ko azaroaren 29an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	10/12	Kulturaren txokoa.....	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak	15	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Denbora pasa	32
Astearen errebasoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/23	Ikusi eta entzun	33

Ikuspegia

Itxaro Artola.....3

Euren ikuspuntutik

Domi Korta.....8

Hogeita hamar galderatan

Bego Zubia.....30


Aurrez aurre

Javier Etxagibel.....24/25

Asteko gaia

Hogei urte

Arizmendiarieta barik.....17/19



Jose Maria Arizmendiarieta

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Azoka kalea, 1
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnua: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaittin Allende (Tfnua: 77 08 15).

Administrazioa: Ikerne Altube (Tfnua: 77 08 15)

Diseinua: Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Rosa Mondragon, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro Bengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Unbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larraga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Leñona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birginitia Urkioa. **Banaketaren arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnua: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: TU-Lankide.

Arrasateko Udaleraren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

29

ostirala

■ ZINEA

Bwana. Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ AHTren BILERA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldearen bilera arratsaldeko 7etan Gazte-txean. Nahi duena joan daiteke.

30

larunbata

■ ZINEA

Trainspotting. Alai zinemaman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ AKEIRA MARTXA

EKIk eta CCOOek deituta. Irteera: goizeko 11etan Portaloitik.

■ ANDRA MARI KORALA

Goikobaluk antolatuta Gernikako Andra Mari Koralaren emanaldia arratsaldeko 8etan San Juan parrokian.

■ KONTZERTUA

Laudioko *Formas de Hablar* eta *Lur* punk-rock eta hard-core taldeen kontzertua, Gaztetxean gaueko 9etan.

■ KONTZERTU ONGILEA

Arrasate Musikalek antolatuta, Krystian Zimmerman pianojolearen eta Sinfonía Helvética orkestraren kontzertua Amaia antzokian gaueko 10etan. Sarrerak 5.000 pezetatant Mendi tabernan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

SFX ikastolan Gipuzkoako Akordeoi Jaialdiaren emanaldiak 9etan, 3.30etan eta 7.45etan. XVII. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketaren lehen fasea goizeko 10etan eta 3.30etan.

■ OSKORRIREN JAIALDIA

Beinke euskera elkartearen 10. urteurrena ospatzeko, Oskorri eta Kepa Junkeraren emanaldia. Aretxabaletako kiroldegian gaueko 10.30etan. Sarrerak: aurrez 1.000 pta. eta 1.200 takilan. Arrasaten: Hiren eta AEDn salgai.

1

igandea

■ ZINEA

Trainspotting. Alai zinemaman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Hies-Ekimenak antolatuta eguerdiko 12etan eta 6etan mahai informatzaileak Seberon; 6.30etan trikitilariak; 7etan giza-katea Seberon; 7.15etan txalaparta herriko plazan; 7.30etan Tunantes del Norte taldearen *Soo Bitxo* antzezlan herriko plazan. Euria egingo balu txalaparta eta antzerkia Gazteluondoko aterpeetan.

■ NAFARREN EGUNA

12.30eta meza San Juan parrokian. Ostean ardoen dastaketa Herriko Plazan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketaren azken faseak 10etan, 3etan eta 6etan Amaia antzokian. Gipuzkoako Akordeoi Jaialdiaren emanaldiak SFXen 9etan, 3.30etan eta 6.25etan.

■ DIAPOSITIBA EMANALDIA

Aretxabaletako Murruxo Mendi Elkartek antolatuta, Alberto eta Felix Iñurrategiren Kangchenjunga-Shisha Pangma diapositiba emanaldia arratsaldeko 7etan Zاراia Zineman.

2

astelehena

ZINEA

Trainspotting. Alai Zinemaman 7 eta 9.30etan.

3

asteartea

■ ZINEA

Trainspotting. Alai Zinemaman 7 eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

■ HITZALDIA

Uribarriko jubilatutxean, *Alzheimer y prevencion* hitzaldia arratsaldeko 5etan Alzheimer Elkartearen eskutik.

4

asteazkena

■ MAHAINGURUA

Harreman taldeak antolatuta, "Zer ikasi dezakegu 3. munduarengandik?" gaiari buruzko mahaingurua arra-

● **Txitxinpe** ●
 Bereztasunak:
 Kafea, ardoa, urdaitegia,
 fruitu lehorrak
 Arrasate Pasealekua, 33
 ARRASATE • Tel.: 79 67 76

tsaldeko 7etan Monterronen. Aitor Antxia Leturia, Javier Baztan, Oihana Ezkurra, Pili Garcia eta Begoña Rodriguez del Reguero hizlari. Kuba, Sahara, Kolombia, Ekuador eta Perun bizi izandako esperientziak kontatuko dituzte.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren lehen faseak goizeko 10etan eta 4etan Amaia antzokian.

■ AKORDEOI KONTZERTUA

Philippe Bourlois frantziarraren, iazko Arrasate Hiria sariaren irabazlearen emanaldia arratsaldeko 8etan Aretxabaletako parrokiaren.

■ ARGAZKI ERAKUSKETA

EB-IUren komite lokalak antolatuta, Chiapas-i buruzko argazki erakusketa ostiral, larunbat eta igandean Sebero Altubeko frantziskotarren lokalean. Ordutegia ostiralean 6etatik 9etara; zapatu eta igandean goizez 12etatik 2etara eta 6etatik 9etara.

■ MARGO ERAKUSKETA

Kontxita Arana margolari arrasatearraren erakusketa Aretxabaletako batzokian abenduaren 1etik 15era arratsaldeko 7etatik 9etara.

■ AKORDEOIAK ARRASATEN

Gaur hasi eta abenduaren 8ra arte, 410 akordeoilarik egingo dute topo Arrasaten. Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketa, Jaialdia eta Nazioarteko Lehiaketa burutuko dira San Frantzisko Xabier ikastolan eta Amaia antzokian. Lehiaketako emanaldiak publikora zabalik egongo dira. Horrez gain abenduaren 5ean akordeoi emanaldia izango da Kajoi Tabernan eta 6an Aterpe kafetegian. Biak gaueko 11etan.

■ ESKAPARATE LEHIAKETA

Arrasateko Udalak Santamasak 1996 Eskaparate Lehiaketa antolatu du. Parte hartzeko dende izena eman behar dute Udaltxean. Erakustepea gutxienez abenduaren 16tik 22ra artekoa izan beharko da. Irudimena, orijinaltasuna, mezu publikitarioaren balioga-

rritasuna, eskaparatearen itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin zerikusia hartuko dira kontuan saritzeko orduan. 1ngo saria 30.000 pezeta, bigarrena 25.000 eta hirugarrena 20.000 izango dira eta abenduaren 22an eguerdiko 12etan banatuko dira.

■ GURUTZE GORRIKO JOSTAILU BILKETA

Gurutze Gorriko bolondres talde bat ume behar-tsuendako jostailuak biltzen ari da. Abenduaren 2, 3 eta 4an arratsaldeko 7etatik 8etara Arrasateko Iturbide egoitzan utzi ahal izango dira jostailuak Gurutze Gorrikoek jaso ahal izan ditzaten.



HIESAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Domekan Hiesaren Nazioarteko eguna ospatuko da mundu osoan. Arrasaten eta bailarako herrietan ere izango da ekintzarik egun horretan Hies-Ekimenaren eskutik. Arrasaten aipagarria, Tunantes del Nortek herriko plazan eskeiniko duen *Soo Bitxo* obra. Egundorretako ekintzetan parte hartzeaz gain, bada laguntzeko beste era bat: Hies-Ekimenak lazo gorria margotuta duen zapia jarri du salgai jendeak etxeetako balkoietan isegi dezan. Zapia Hiren, Jai Zale tabernan eta Arrabala dendan erosi daiteke.

**Abenduaren 1ean.
Herriko Plazan.
Arratsaldeko 7.30etan.**

5 osteguna

■ ZINEA

Mulhollands Falls. 7 eta 9.30etan.

■ AKORDEOI LEHIAKETAK

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren lehen faseak goizeko 10etan eta 4etan Amaia Antzokian.

■ KAFE KONTZERTUA

Arrasate Akordeoi Lehiaketak egitarauaren barruan, Xabier Zubeldia eta Aitor Furundarena akordeoilarien emanaldia Kajoi tabernan gaueko 11etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 29

• Egunez eta gauzez: Irizar, Erguin.

Larunbata 30

• Egunez eta gauzez: Amezuza, Santamaina.

Igandea 1

• 10ak arte: Ruiz, Maala.

• Egunez eta gauzez: Casado, Bergara

Astelehena 2

• 10ak arte: Morales, San Andres.

• Egunez eta gauzez: Puy, Bergara

Astearte 3

• 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.

• Egunez eta gauzez: Guallar, Bergara

Asteazkena 4

• 10ak arte: Españañol, Iturriotz.

• Egunez eta gauzez: Estella, Bergara

Osteguna 5

• 10ak arte: Corcuera, Musakola.

• Egunez eta gauzez: Mozos, Bergara

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. ... 79 53 00

Igualatorria ... 79 05 00

Santa Agedako Ospitalea

(gizonak) ... 79 39 00

(emakumeak) ... 79 44 11

Buru osasunerako zentrua ... 79 90 11

Gurutze Gorria

Bergara ... 76 55 76

DYA

Antzuola ... 76 62 91

Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdia) ... 79 13 57

• Txanda hartzeko: medikuntza

orokorra eta pediatria ... 77 03 46

• Espezialitateak ... 77 05 78

... 77 12 64

Oñati ... 78 08 52

Eskoriatza ... 79 98 58

Aretxabaleta ... 79 74 58

Aramaio ... (945) 45 51 16

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak ... 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati ... 78 04 11

Bergara ... 76 14 69

Arrasate ... 79 14 39

Aretxabaleta ... 79 10 52

Eskoriatza ... 088

Ertzaintza

Arrasate ... 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea ... 79 09 00

Udal taldeko suhiltzaile burua ... 79 20 72

Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ... 79 09 00

Elektrizitatea (Iberduero) ... 12 01 62

Gasa ... 900 40 05 23

... 79 78 44

... 79 76 78

Garraioak

Taxiak ... 79 12 22

PESA ... 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

Iturbide Egoitza ... 79 72 11

Abaroa jubilatuen egoitza ... 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

KIUB-OMIC ... 79 51 55

Monterrongo liburutegia

Monterron ... 77 01 05

Irratia

Arrasate Irratia ... 79 58 77

AZAROAREN 30ean MARTXA AKEIra, DENBORAK ARRAZOA EMAN DIGU

Datorren abenduaren 1ean AKEI itxiko da. Azaldu al diote herriari zergatik ixten den? Garbi dago ezetz. Seguruenik, askok ez du ezertxo ere jakingo.

Jakin dezagun, bada, AKEI Europako arautegia betetzen ez duelako ixten dela. Labur esanda, erraustegi horrek sortzen dituen gas, zepa edo eskoria eta lixibatuen kutsadurak pertsona, animalia eta landareen osasunari kalte handia egiten diola esaten dute.

Aspalditik ari gara egoera hau salatzen. Gure kritika hainbat alderditatik zuzendu dugu:

- Erraustegia oztopoa da Hiri Hondakin Solidoen (zaborren) inguruko politika razionala garatzeko. Zentzuzkoena arazoaren sus-traira joatea da eta ez eraginetan geratzea. Horrek, hondakinak murriztu, berriro erabili eta birziklatzeari buruzko politika aktiboa garatzea eskatzen du.

- Hiri hondakin solidoak erraustea ekintza kaltegarria da osasun publikorako eta ingurugirorako, produktu toxiko, iraunkor eta biometagarriak botatzen dituelako. Substantzia horien artean dioxinak eta furanokak daude; horiek batik bat klorotik erakarrirako pro-

duktuak dituzten hondakinak erraustean sortzen dira. Pozoi hori liseriketa, birika eta azalaren bidez guregana deza-kegu. Gainera, zientzilari askoren ustez, kantzerra sor dezakete.

Dioxina eta furanoekin batera likidu lixibatuak daude eta ingurunea, errekek eta lurrazpiko urak kutsatzen ditu.

Zepa edo eskoriak eta iragazkien erraustak ere oso toxikoak dira.

- Hondakinen arazoa gizarte eta kontsumo-motarekin lotuta dagoenez, konponbideak ere gizartearen onarpena eta parte hartzea izan behar du. Horregatik, herritarrak kontzientziateko politika aktiborik ez izatea salatu diegu administra-zioei.

Mankomunitateak eta osatzen duten udalek entzungor egiteaz gain, gure kritikak berankorrak zirela esan zuten. Are gehiago, beste erraustegi bat egitea pentsatzen zuten, baina baztertu egin zen ideia, Foru Aldundiak probintzia osorako erraustegia egitea proposatu zuelako.

Gaur egungo egoera hau-xe da: Europako Ekonomi Elkartek AKEI ixteko agindu du eta Foru Aldundiak erraustegi berria ez eraikitzea erabaki du, bakar-bakarrik arrazoi ekonomikoengatik.

Gaur atzo bezala, hondakinak murriztu, berriro erabili eta birziklatzea kon-tuan hartuko duen politika

erreibindikatzen dugu.

Horretaz gain, Arrasateko Udalean erabakitakoa gauzatu dadila eskatzen dugu. Erabaki horren bidez, Arrasateko Udalak azterlan epidemiologiko bat egiteko eta AKEI inguruko lursailak lurzoru kutsatutzat hartu eta errekuiperatzeko konpromi-soa hartu zuen.

Azaroaren 30ean, mar-txa AKEIra, Portaloitik goi-zeko 11etan aterako gara.

CCOO-EKI

Zuzenketa

Joan den asteko erreportaian, Aretxabaletako Udalak intsumisio izatea ez zuela onartu jarri genuen Jon Etxebarriaren hitzetan, eta hori ez da zuzena. Etxebarriak esan nahi zuena zera da: Aretxabaleta udal intsumisioa izan arren, ez zuela onartu intsumisoei egiten zaien epaiketen kos-tea ordaintzea.

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22



Zer erizten diozu NATO-n egoteari?



Amaia Moneo
Etxekoandrea
(40 urte)

Txarto, antimilitarista naiz eta ez dut ulertzen zertarako egon behar dugun hor barruan.



Abdon Merino
Jubilatua
(67 urte)

Armekin zerikusia duen edozer gauzari gaizki erizten diot. Gerra defenditzeko erakundeak, nahiz eta oreka bati eusteko izan, gaizki daude, oreka hori ez da lortzen eta.



Fernando Saz
Langilea
(28 urte)

Oso gaizki, soldadutza hor-tik zehar egiteko arriskua du. Gainera lehen erreferenduma egin zen eta ezezkoak irabazi egin zuenez orain berri bat egin beharko litzateke.



Modesto Mellado
Langilea
(41 urte)

Uste dut kanpoan egon beharko genukeela, azkenean armen merkatua indartzeko sistema bat besterik ez da eta. Militarrek soberan daude lehendik ere.



Loli Zeziaga
Langilea
(44 urte)

Oso gaizki, nahikoa arazo badugu beste batean sartzeko.



Maria Murillo
Etxekoandrea
(52 urte)

Ez dakit ezer asko horren gainean, baina gazteak soldadutzara kanpora joatea ez dago ondo. Nahiago nuke semeak hemen egingo balu, baina horretan politikoei egin beharko litzukete gauzak behar den moduan.



Jesus Mari Irizar
Langilea
(50 urte)

Ez daukat iritzirik horretan, gerraren inguruan dabil-tzan erakundeak niretako ez direlako zuzenak; gainera, horrelako neurri bat hartzerik ez dago jendearekin kontaktu barik.



Maite Iturbe
Langilea
(37 urte)

Gaizki, pentsatzen dut NATO-n egonda armei eta horrelako gauzei garrantzia gehiegi ematen zaiela. Horrekin gerra babesten da eta hori ez dugu behar.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

**ANBOTO
BODEGA**

Anzo giro jatorra!

Anboto, 1 behea
Tel.: 77 09 15 ARRASATE

Sili Sili

**Martxa eta estilo
handiko erropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

USTEAK USTE

Euskara maite ei dugu

Euskarak borondate politikoa behar du" zioen aldizkari honetan bertan EKBko lehendakariak, Juan Mari Mendizabalek; agerian utziz borondate horren falta dagoela.

Azalpen gehiago eman zuen EKBk, politikoen euskararen ezaguera eta erabilpenaren gaineko datuak: politikoen euskararen ezaguera eskasa da eta gutxi erabiltzen dute. Ados, bertako plenoak ikusi oharzeko.

Balantzaren bestaldean herritarrek jartzen zituen EKBren inkestak, eta adierazten zuen euskararekiko jarrera ona zela, Euskadin bizi garenon gehiengoak euskararen normalizazioaren alde dagoela, baita abertzale ez direnak ere. Gura nuke sinestea, baina neurekiko pentsatzen dut jendeak aitortzen dion maitasun hori benetakoa balitz euskara loratu egingo litzakeela, politikoei eurek ere hori kontuan hartuko luketeela... errealitateak beste zerbait erakusten digun bitartean. Euskarari hain aldeko jarrera epela adierazten dioten horiek ia nahiago nituzke kontra, horrela akaso beste askoren epeltasuna berotasun bihurtuko litzateke.

Beñardo Kortabarría



Abenduak 1, eguneroko borrokaren itxaropena

Domi Korta

Gastu multimilioiarren eta pareko irabazien urte bat gehiago, gehiegizko gastuak ihardunaldietan, izugarritzko jaialdiak gogorarazteko gure lagunen %90a botika bakar bat erabili barik hiltzen dela.

Egun honetan gastuak, lazoak, ikurrak, ahanzturaren kutxatik irtengo dira eta gure ahoko giharrak lasaituko dira apur bat... hutsuneak hurrengo egunean jarraituko du.

Bermioko Txo-Hiesa, Hernaniko Nahia, Arrasateko Hies Ekimena eta Elgoibarko Errotatxotik gogora ekarri nahi dugu egunez egun VIHaiz gaineko beste arazo batzuk sortzen direla:

- Aseguru enpresek ez dute ezer nahi gurekin.

- Lantegi batzuetan oraindik antigorputzen frogak egiten dira, lana egiteko daukagun eskubidea ukatuz, eta sindikatoak ixilik.

- Oraindik arazoak daude preserbatiboak, metadona edo xiringak eskurarazteko.

- Kartzeletako egoera dramatikoak da.

- Farmazia enpresek irabaziak pilatzen dituzte, milioika.

Salaketa egiten dugu gure bizitzeko eskubidearen eta bizi kalitate

batera iristeko eskubideen aurretik euren segurtasuna jartzen digutenen zentzugabekeriak gainditzen gaituenean.

Abenduak 1 honetan, gogoratu behar da eguneroko lanak bermatuko duela itxaropena. Ez du ezertarako balio abenduaren leian VIHa-rekin bizi garenoi arazo bat gehiago konponduko gintuzkeen ekintza garestiak antolatzea.

Ahaztu behar ditugu honekin negozioa egin dutenak? Ez, noski. Horregatik egun honetan, keinu sinple batez gain eguneroko borroka bultzatu behar dugu, Hiesarekin bizi/biziko garen/direnen laguntza, gure mundutik irtenda eta aurrera begiratzu.

Txo-Hiesa, Nahia, Hies Ekimena eta Errotatxok ahalginak bildu ditugu, geure errealitatearen bolondres gara,

izena dugu eta eguneroko gure ekintzengatik ezagutzen gaituzte, Hiesa gera genezake eta geratu egin behar dugu.

Abenduaren leian ez dugu ahaztu behar asko hil egin direla, eta euren biziagatik borroka egitearren errespetoa zor diegula, inork ezin ditu eta bere aurreiritziak eta moralak Hiesarekin bizi garenon giza-eskubideen gainetik jarri. Itxaropena da galdu ezin dugun gauza bakarra, eta eguneroko borrokarekin lortuko dugu, beldur barik, antolatuz eta lokarriak eteten.

Koherentzia urteak daramatzagu, eta esan dezakegu ez dugula galduko multinazionalen erositako elkarrean, profesionalen eta liberatuz betetakoak, Hiesaz kanpoko eskakizunez beteta, eta oso garesti erositako irudiekin. Dirua, argi dago.

Abenduak 1 honetan ez utzi zirria sartzen, eta borroka egin, borrokarik gabeko egun bat galdutako itxaropena da eta, eta hori garestia litzateke, garestiegia hemen dauden giza-baloreendako.

Esandakoa, Txo-Hiesak, Nahiak, Hies Ekimenak eta Errotatxok behar zaitu, engainu barik.

Domi Korta, Hies Ekimeneko partaidea da.

Abenduak 1 honetan gogoratu behar eguneroko lanak bermatuko duela itxaropena

astea bi hitzetan

■ “Beberly” tabernan lapurreta

Larunbat gauean Musakolako “Beberly” tabernan sartu ziren, eta 65.000 pta. lapurtu zituzten. Lapurrak ateko zerraila hautsita sartu ziren taberna barrura.

■ Txatxilipurdiren antzerkia

Txatxilipurdiren antzerki tailerlean parte hartu duten gaztetxoek “Hau da gaztaroa” obra eskaini zuten igandean. Jende asko hurbildu zen Amaia antzokira antzerkia ikustera. Obrak ordu erdi eskas iraun zuen.

■ 200.000 pta. lapurtu emakume bati

Joan den ostiralean, gainean zeraman poltsa lapur-

tu zioten Grupo San Juane-ko merkadilloan erosketak egiten ari zen emakume bati. Azokara hurbildu baino lehenago banketxean izan zen emakumea, eta 200.000 pta. atera zituen. Emakumeak ez daki banketxetik norbaitek jarraitu ote zion, eta poltsa lapurtzerakoan ere ez zuen ezer igarri.

■ Ertzaintzak “Piku” atxilotu

Gestorak antolatuta, presoak Euskal Herriratzearen aldeko enkartelada eta manifestazioa egin ziren Arrasaten joan den igandean. Manifestazioan Ertzaintzak Jose Ramon Belastegi, “Piku”, atxilotu zuen. Gaueko 12.30etan aske geratu zen 49 urteko arrasatearra. Er-

tzaintzaren arabera, bere burua identifikatzeari uko egin ziolako atxilotu zuten. Gestoraren esanetan, atxilotuari ez zioten identifikatzea eskatu, eta besterik gabe atxilotu zuten.

■ Uribarriko elizan gurutzea jarri

Uribarriko elizaren kanpantorrea konpondu ondoren, astelehenean gurutze berria jarri zioten elizari. Soka enpresako eskalatzaileak aritu ziren gurutzea jartzen, eta elizaren inguruan bildu zirenak harrিতuta geratu ziren eskalatzaileek erakutsi zuten trebeziarekin. Gurutzeak metro bateko luzera du. Kanpantorrea konpontzen ere Soka enpresakoak ibili dira.

ARGIAREN TELEBISTA SARIA ARRASATERA

Ostiralean banatu ziren Lasarten aurtengo Argia sariak, eta telebistarena ATBri eman zioten. Arrasate Komunikabideetako gerenteak, Ikerne Altubek, ATBren inguruan lan egiten duten guztien lana eskertu zuen saria jasotzerakoan. Bertso doinuekin lagunduta banatu zituzten sariak epaimahaikideek.



“... gizarte osoak jakin beharko luke ez dela komenigarria ezer dohainik ematea. Dela musika, kontzerturik, sendagairik edo autopista-ko peajerik. Prezioek arrazoi bidean jartzen dituzte eroste erabakiak, eta lehenatasunak finkatzen. Gainera, eskaria mugatu eta eskaintza ugaltu egiten dute: gutxiago izango da lehengo beretik eta gehiago bestelakotik.



Zerbait ezer kostatzen ez bada ez da baloratzen. Eta baloratzen ez bada ez da behar bezala erabiltzen.

(...) Bestalde, ordaintzen ez duenak nekez egin lezake erreklamaziorik. Zerbitzu bat hobetu nahi bada dohainik erabat baino sistema okerragorik ez dago. Debaldekotasuna ez da arrazoi sozialengatik ere justifikatzen (sendagaiena adibidez), kontsumoa areagotzen baitu ongizatea hobetu gabe.

(...) Bizitzak badu eskuzabala izaterik; ez, ordea, ekonomiak. Inolako prezioetan ere”.

ANTTON PEREZ CALLEJA


Argia
1996-11-17

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 79 22 70

- Markoak
- Kuadro originalak
- Obra grafikoa
- Laminak
- Ispiluak

ARREGI
Arte eta Enmarkazioak



Maalako Errabala, 8 • ARRASATE • Tel.: 79 56 44



Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

Gobernu Taldeak Ertzaintzaren jarrera salatu

Igandean Ertzaintzak izan zuen jokaeraren aurka azaldu zen asteleheneko Gobernu Batzordea. Joan den igandean manifestazioa egin zen herrian, eta Ertzaintzak arrasatear bat atxilotu zuen. Ertzaintzaren esanetan, manifestazio horren berri ez zutelako atera ziren manifestazioa identifikatzera.

Gobernu taldeak, gainera, urriaren 11n plenoan onartu zen mozioa gogorazi eta Arrasateko Ertzaindegiko zuzendariari eta Herrizaingo Sailburuari, Atutxari, mozio horren lehenengo puntua bidaltzea erabaki zuen. Puntu horrek honakoa esaten du: arrasatear guztiak bakean, publikoki eta poliziak parte hartu barik, euren aldarrikapenen alde manifestatzeko eskubidea dutela.

Jaiotzak

- Lorea Otaduy Urzelai. Azaroaren 10ean.
- Ioritz Saez de Gordo Bengoa eta Markel Saez de Gordo Bengoa. 12an.
- Josu Azkarate Iglesias. 14an.
- Josu Azkarate Lizarralde. 14an.
- Josu Ayucar Agirre. 14an.
- David Tximeno Arias. 16an.
- Unai Cagigas Saiz. 17an.
- Odei Marcos Gonzalez. 18an.
- Jone Soto Atxa. 18an.
- Jone Elortondo Iglesias. 19an.

Hildakoak

- Maria Rosario Gomez Sanchez. Azaroaren 19an. 43 urte.
- Servasio Del Regedo Leonardo. 23an. 84 urte.

EAJk, PSE-EEK eta EAK erabakita dute non erosi lursail industrialia

Markuleten (Garagartzarako bidean) 16.151 m²ko lursaila erostea proposatuko dute EAJk, PSE-EEK eta EAK gaur egingo den plenoan. Lursail horri erabile-ra industrialia emango zaio, hau da, enpresak erakari nahi dira bertara, eta erosketak 168 milioiko kostua izango du. Hiru urtetan ordainduko da kopuru hori.

Jose Mari Loiti EAJko zinegotziaren berbetan, oraindik ez da azaldu lur horietan lantegia jarri nahi duen enpresarik, baina beharrezkoa da lursail industrialia gertu izatea behar denean saltzeko aukera egon dadin.

Ezker Batuak aurreratu

du aurka bozkatuko duela eta ziuraski HBk ere kontrako botoa emango du. Angel Tijero EBko zinegotziak esan bezala, ez daude lursail industrialia erostearen aurka, baina erosi aurretik beharra ote dagoen ikusteko azterketa egin behar dela uste dute.

Aurrekontuak onartzeko egin zen plenoan alkateak gogoratu zuenez, Markuleten Udalak badu lursail industrialik. Zehazki 12.727 m²ko lursail bat eta 3.578 m²ko beste bat.

HBren MOZIOA

Espainiako Kongresuak NATOren egitura militarrean erabat sartzea onartu due-

la eta, beste herri batzuetan egin duen bezala Arrasaten ere horren kontrako mozioa aurkeztu du Herri Batasunak. Mozioan, Hego Euskal Herria NATOtik kanpo geratzea eskatzen da.

HBk jakina, alde bozkatuko du eta baita Ezker Batuak ere. Gainontzeko alderdiek zer egingo duten, berriz, ez dago ziur baina baliteke Aretxabaletan gertatutakoa errepikatzea. Aretxabaletan, EAJk, EAK eta PSE-EEK mozioaren aurka bozkatu zuten, Udala horrelako gaiak aztertzeko instantzia egokia ez dela argudiatuz. Plenoa, beti moduan arratsaldeko 7etan hasiko da.



Prensaurrekoa eta mozioa

Asteartean prensaurrekoa eman zuten, Gestorako eta Senideak-eko kideek eta bi deportatu ohiek. Prensaurrekoan, presoek bizi duten egoera salatu, eta gaur aztertuko den mozioaren berri eman zuten. Gaurko plenoan, Senideak-ek Josu Arkauz presoaren inguruan aurkeztutako mozioa aztertuko da. Mozio horretan esaten denez, Frantziako espetxean zigorra bete ostean Arkauz espainiako polizia-aren eskuetan utziko duten beldur dira. Hori ez dela legezkoa eta, zigorra bete ostean Arkauz aske geratzea eskatzen da.

Arratoien aurkako kanpaina

“Pozoia ez da nahikoa arratoien aurka”

Arratoiendako pozoia aldatzea erabaki du Udalak orain gutxi, eta horretan 249.000 pezeta erabiliko ditu. Arratoien kontua dela eta, Udalak urte osorako 1.100.000 pezetako aurrekontua dauka. CESPAn enpresak egiten dituzten Arrasaten arratoien aurkako kanpainak, urtean indartsuen bi aldiz, udaberrian eta udazkenean, baina urte osoan mantentzen da. Arratoiak hiltzen ez direnez aldatu behar izan da orain arte erabiltzen zen pozoia, azkenaldian ugaritu egin direla konturatu eta gero.

“Segimendu berezirik ez da egiten, -dio Alberto Loitik, zerbitzuetako udal teknikariak- baina kexaren bat edo beste jaso dugunez konturatu gara ugaritu egin direla”. Dena den, pozoia berez ez da nahikoa arratoiei aurre egiteko, herri-tarrek ere egin dezakete zer-bait euren aldetik. “Arratoia janaria dagoen tokian ibiltzen da, eta ez badago gosez hil daiteke; lehen egin beharra hori izango litzateke, janaririk ez botatzea. Era berean garrantzitsua da zaborra bere ordu-tegian ateratzea, sakurik apurtu ez dadin. Azkenik, txabole-tako animaliak ez hiltzea gomendatu behar dugu, tripak normalean bota egiten direlako eta gero arratoiak jan egiten dituztelako”.

Ez dago zehazterik herri-



Janaria dagoen tokian ibiltzen dira arratoiak.

ko zein tokietan ibiltzen den arratoi gehien, baina batez ere ura dagoen inguruan ibiltzen

dela aipa daiteke, eta horregatik pozoï gehien erreketan botatzen da, urtean 1.000 kilo.

Azkenengoz orain 15 urte aldatu zen pozoia. “Arratoien aurka ezin da pozoï indartsurik erabili, ikusten badute arratoi batek zer-bait jan eta bertan hiltzen dela gainontzekoek ez dute jango. Horregatik, apurka apurka hiltzen dituen pozoia erabili beharra dago. Gertatzen da arratoi batek pozoï gutxi jaten badu gaixotu, antigorpuak sortu eta laister sendatzen dela. Hori da arratoien aurkako borroka hain zaila izatearen arrazoia”.

Bukatzeko beste datu bat, arratoien eraginez urte osoan elektrizitate eta tutueria sarean egindako kalteak, batzaz beste, 20 milioi ingurukoak izan daitezke.



Arratoien aurkako borroka abi motakoa da: pasiboa - elikagaiak eta baldintza egokiko ingurunetara bideak moztea- eta aktiboa -prozesu

Muridoen aurkako borroka

desberdinak erabiliz arratoien suntsidura eragiten dutenak: mekanikoak (zepoak), biologikoak (etsaiak diren animalien erabilera, gaixotasuna sortarazten duten mikrobioen inokulazioa) eta kimikoak (konposatu desberdinen erabilera). Azken hauek dira eraginkortasun handienekoak: gas toxikoak eta betiko “arratoien aurkako hautsak”. Egun

antikoagulatzaileak erabiltzen dira gehien. Produktua irentsi eta 36 ordura odol-jarioen ondorioz arratoiak hil egiten dira. Prozesua eraginkorra izan dadin jarraipena eskatzen du. Antikoagulatzaileen aurrean erresistentzi formen agerpenak, esperimendazioa bultzatu du antzutasuna produzitzen duten konposatuen bila.

Juan Arbulu, biologoa



OPIL
OKINDEGIA

DONIBANE-PAPVR

GOZOTEGIA

Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE

*Hurbildu zaitetz
eta dastatu gure
osi eta pastel
bereziak!*

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Itxieraren azken egunetan ere ika-mikak Akei-n enpresa, langile eta sindikatuen artean

Akei-ren itxiera uste baino gatazkatsuagoa izaten ari da. Orain dela aste batzuk Akei-ko langileek greba hasi zuten euren lanpostuen defentsan, eta orain, Dragados-ekin harremanetan dabilta euren egoerari irtenbidea aurkitu asmoz. Dragados-ek, hala ere, bidali du Lan Ordezkaritzara 10 langileen kontratua bertan behera geratzen dela dioen idatzia. Horren aurrean, ELA sindikatuak kontrainformea prestatu du, eta Lan Ordezkaritari bidali dio. Auzi honetan, Lan Ordezkaririak izango du azken hitza.

Astean, berriz, EKIk eta CCOOek Akeiren itxieraren aldeko martxa deitu dutela eta, erraustegiko langileek

euren lanpostuekiko ardurarik ez izatea leporatu diete. Ekologi taldeak eta sindikatuak langileak kale gorrian gertzeak kezkatzen dituela erantzun dute, eta langile horien arazoari irtenbidea emateko sindikatu guztiak batzearen alde azaldu dira.

Kontuak kontu Akei-ko labeak azken orduak bizi ditu, eta bihar azken zaborrak erreko dira bertan. Astean Sasietara eraman dituzte zaborrak, gaur labeak azken zaborrak erre ditzan. Labea isteak, hala ere, ez du esanahi AKEI itxi-ko denik. Lehenbailehen transferentzi gunea egiten hasiko dira, bertan zaborrak konpaktatu eta ondoren Sasietara eramateko.



AKEIko langileek greba egin zuten orain dela aste batzuk.



AUSARTU ZAITEZ!

Abenduaren 13an, Jostunen Egunean, Kataide Jatetxean temperatura igo egingo da.

- 9,30etan afaria.
- Afal ostean musika.
- 2etan strip-tease.

Izena emateko deitu Kataide Jatetxera. Anima zaitez!!

Kataide poligonoa

Tel: 79 60 10 • ARRASATE

Abenduaren 14ko arratsaldean gorde toki bat zure agendan...

<i>Larunbata</i>	<i>Abenduak 14</i>
<i>Ordua</i>	<i>Zer?</i>
<i>4etan</i>	<i>Txirri, Mirri eta Txiribiton</i>
<i>6etan</i>	<i>Txirri, Mirri eta Txiribiton</i>

...Amaia Antzokian emango baiduzu inguruko neska mutilekin.

"Pantera Beltza"

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON

- Abenduaren 14ean
- Arratsaldeko
4etan eta 6etan.
- Amaia antzokia




ARRASATEKO UDALA



Neguko aurrezpen-bildumaren aurkezpena

175.000 pta. 3 hilabetera.
100.000 pta. 6 hilabetera.



Pelutxezko hartza

Tamaina handiko eta adats fineko
Pelutxe Hartz bat, etxeke txikientzat.



Euskarri desmuntagarria duen kazola.

175.000 pta. 6 hilabetera.
100.000 pta. 12 hilabetera.



Vitroflam tresneria

Bitrozeramika, mikrouhin eta
labearentzat bereziak.



350.000 pta. 6 hilabetera.
175.000 pta. 12 hilabetera.

Fagor tresneria

Altzairu herdoilgaitzezkoa 18/10
Urre koloreko euskarriak.
Indukziozko sukaldeentzat aproposa.

Hiru artikuluak

600.000 pta. 6 hilabetera.
300.000 pta. 12 hilabetera.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Orain dela 37 urte kontsulta ireki zuen Erdiko kalean Alberto Ubago dentistak, eta geroxeago, Eskualde

Ospitalean hasi zen lanean. Nahikoa jende aho zabalik utzi

ondoren, orain jubilatzeako ordua iritsi zaio Ubagori. Horregatik, joan den ostiralean agur afaria egin zioten Eskualde Ospitaleko lankideek.

Zenbat hagin atera ote dituen galdetzerakoan, "milaka izango ziren" erantzun zigun dentistak.

MAKINA BAT AHO IKUSITAKOIA!



Look berria daukate Arrasateko zuhaitzek, konturatu zarete? Bai, ilea moztu dizkiete... edo hobeto esanda, adarrak. Negurako prestatzen ari dira eta horregatik

astean

zehar

hainbat ile-apaintzaile

ZUHAITZEILEA MOZTEN

eskaileretan igota ibili da zuhaitzez-zuhaitz adar zaharrak mozten udaberrian itxura berriarekin ager daitezen.



IZENA

Kontxi Arana

margolari arrasatearrak, erakusketa jarri du Aretxabaletako Batzokian.

Kontxi 68 urte ditu eta bigarren aldia da erakusketa jartzen duela. Abenduaren 1ean irekiko da erakusketa, eta 15era arte egongo da zabalik.



Mutila serio eta neska irrifartsu... baina biak dotore-dotore euren ezkontza egunean. Jose Ramon Garai eta Kristina Azkarate dira eta urriaren 19an jarri zion ezkontza bataak besteari. Ezkontzidaian urruti joan ziren, Bali, Yakarta eta Singapurera. Zorionak eta urte askotarako, bikote!

MAITIA NIRIA...



DATA

1931ko azaroak 28



Arrasateko lehen ezkontza zibila ospatu zen, ezkontzideak Brigida Monje eta Gregorio Gonzalez. Garai hartako Euzkadi egunkariak hauxe zioen ezkontzari buruz: "orain arte Euzkadi gañetik agiri da gauza guztietan, baña erri ontan apurtu gaitue. Ebrotik aruntzik etorritako bi civil ezkondu dira. Diñuenez, lenengoa da Arrasaten".

KANPANZAR TAILERRAK



3 eta 5 ate!

Suzukik bere gaman turbo diesela gehitu du.




Zatoz ezagutzera!!

Tailerrak:

Bizkaia etorbidea, z/g Tel.: 79 41 98

Erakusketa:

Araba etorbidea, 4 Tel.: 79 77 66



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide
aproposena!**



(I+D) Ikerketa eta garapena









Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.

Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE




Jose Maria Arizmendiarrjeta

Gizon kooperatiboa

Gaur bertan 20 urte bete dira On Jose Maria Arizmendiarrjeta hil zela. Arrasateko kooperatibismoarentzat bera izan zena idaztea ez da erreza, ia ia dena idatzita dago eta. Gainera, ezagutu ez izanak zailagoa egiten du lana eta beti dago hain handia eta bihotz-zabala izan zen gizonari buruz idazterakoan motz gelditzeko beldurra. Arrisku horretan eta orain arte kaleratutako liburuen kopia hutsean ez erortzeko, berarengandik gertu bizi izan zirenei On Jose Mariak utzi zien inpresioa isladatzea da akaso egokiena.

On Jose Maria Arizmendiarrjeta gazte gazte, 25 urterekin heldu zen Arrasatera trenean otsailaren 5ean. Eskuan kartoizko maletatxoa baino ez zekarren. Lauzirika gotzaiak aginduta etorri behar izan zuen Gasteizko seminariotik Arrasateko parrokiara. Handik denbora gutxira Union Cerrajerako Apendiz Eskolan hasi zen soziologia eskolak ematen.

Jose Maria Ormaetxeak, gaur 70 urterekin eta kooperatiben fundatzaileetariko bat izan zenak, horrela gogoratzen du On Jose Maria ikusi zuen lehenengo eguna. "Nik 14 urte baino ez nituen, berak 25. Altua, argala, irrifartsua eta elegantea iruditu zitzaidan. Berehala bereganatu zuen nire adineko mutilen maitasuna. Jesus Larrañagak, Ormaetxearekin batera kooperatibetako fundatzailea



Jesus Maria Ormaetxea

izan zenak berriz, horrela gogoratzen du: "Bere klaseetan, Zerrajeran, erdi lo egoten ginen. Esatari txarra zen baina kontzeptuak oso argi zituen. Samurtasun ezak, ordea, ez zion erri-dikulorik sortzen. Gizon argia zen eta berak nahi zuena jendeari kontzientzia ematea zen. Oso koherentea zela gogoratzen dut ere. Anekdotak moduan gogoratzen dut behin La Voz de España egunkarian Pablo VI. Aita Santuak pilula antisorgailuen aurka idatzitako artikulo bat. Artikulua hartu eta On Jose Mariari eraman nion zirikatze-ko asmoarekin. Berak esan zidan: "Niri kontzientziak baino ez dit agintzen".

ESKEMAK APURTZEN

1941ean Gerra Zibilak hemen utzi zuen arrastoa oso nabaria zen: ahotsa altxatzeko beldurra, tristura, zatitutako familiak, ideologia politiko kontrajarriak... urte zailak ziren, eta On Jose Mariaren lana zaila goa.

Jose Maria Ormaetxea gogoratzen duenez "gizartea estamentutan banatuta zegoela ikustazari ziguten baina On Jose Mariak, modu harrigarri batean, hori ez zela horrela izan behar erakutsi zigun. Ginen estamentukoak ginela, injinero, enpresari, mediku edo nahi genuena izan ginetekeela esaten zigun. Ondo gogoratzen ditut bere hitz batzuk: "Mundua Jaungoikoarena da eta Jaungoikoak ausartei eman die mundua, beraz, ez ezazue aurreiritzirik izan eta aurrera egiten uzten ez dizueten tabu horiek apurtu".

On Jose Mariak gauzak esateko modu berezi bat ei zuen, ez zituen bere pentsamenduak

hain modu zuzenean esaten. Gauzak goitik behera aldatzeko gogoia eta asmoa bazuen ere, positiboki hitzegiten ei zuen beti eta apaiza zenez, horrek jendearen oniritzia ematen zion. Dena dela, Jesus Larrañagak gogoratzen duenez, On Jose Mariaren etorrerak tripako minak ere sortu zituen batzuegan, Arrasateko burgesiarengan hain zuzen. "Kasinoaren inguruan elkartzen ziren burgesek ez zuten begi onez ikusten berak esaten zuena. Asko kritikatu zuten eta gainera, bere hitzegiteko samurtasun eza aprobetxatuz, barre egiten zioten. Azkenean amore eman behar izan zuten".

ARRASATEARREN KONFIDANTZA IRABAZTEN

Arrasatera heldu zenean

"Arrasateko burgesiak asko

kritikatu zuen Arizmendiarieta, gainera, bere hitzegiteko samurtasun eza aprobetxatuz, barre egiten zion"

(JESUS LARRAÑAGA)

"Lehenengo kooperatiba izango zena egiteko aukera heldu zitzaigunean, bere pentsamoldea barruraino sartuta genuen"

(JOSE MARIA ORMAETXEA)



1966ko ekallean Medalla al Merito en el Trabajo eman zioten. Abuztuaren 25ean Romero Garcia Hezkuntza ministroak jarri zion domina.

ezezagun bat bazen ere, gutxinaka gutxinaka herritarren konfidantza irabazi zuen. Argi zuen jende guztiak zuela ikasteko eskubidea eta horregatik,

1943an Eskola sortu zuen. 1947an, Union Cerrajeran maestria industrialia amaitu zuen ikasle taldeari Zaragozako unibertsitatean ikasteko aukera eman zien berak egindako ahalegin eta kontaktuei esker. Ormaetxea eta Larrañaga horietako bi ziren eta Zaragozan lortutako perito industrial agiria eskuetan zutela, 1955ean lehen kooperatiba sortzeari ekin zioten: ULGOR SCI. Baina orduan, zerikusirik bazuen Arizmendiarietak kooperatiben sorkuntzan? Ormaetxea oso argi dauka: "Berak gizar-teari zer komeni zitzaion esaten zigun, baina sekula ez, zer egin behar genuen. Bizi guztia predikatzen ezin genuela pasa esaten zigun eta ideiak gauzatu egin behar zirela. Lehenengo kooperatiba izango zena egiteko aukera heldu zitzaigunean, Arizmendiarietaren pentsamoldea barruraino sar-



Izpiritu kooperatibista zuen gizonaren bizitza eta lana

1915-4-22: Jose Maria Arizmendiarieta Markinako Iturbe baserrian jaio zen.

1931: Gasteizko seminarioan Filosofia ikasten.

1936-1939: Gerra zibilean gudariek in joan zen eta kazezaritza lanak egin zituen. 1937an ejerzito nazionalak atxilotu eta kartzeleratu egin zuen. Tropa nazionalentartuarazi zuten. Gerra amaitu ondoren Gasteizara bueltatu zen apaiz ikasketak amaitzeko.

1941-2-5: Arrasatera dator Parrokiako koadjutore lanetarako.

1943: Juventud Deportiva sortzen du Arrasaten. Urriaren 10ean Eskola Profesionalaren lehen egoitza inauguratzen da bere ekimenez.

1947: Arizmendiarietak Perito Industrialen lehen promozioa Zaragozako unibertsitatean matrikulatzea lortzen du.

1948: Eskola Profesionalaren entitate juridiko eta patrosinatzaile gisa, Liga de Educacion y Cultura sortzen da.

1952: Eskola Profesionalaren bigarren egoitza inauguratzen da gaur egun ospitala den egoitzan. 170 ikasle daude matrikulatuta. Inauguraketan Ruiz Jimenez Hezkuntza Ministroaren *Encomienda de la ordean Civil de Alfonso X El Sabio* jasotzen du.

1953: *Asociación Mondragonesa de la Vivienda* sortzen du orduan zegoen etxe eskasia estaltzeko.

1956: Apirilaren 14an ULGOR SCI lehen kooperatibaren lehen harria bedeinkatu zuen.

1957: Eskola Profesionalak ofizialki lortzen du Ofizialia eta Maestria graduak.

1959: *Caja Laboral* eta *Servicios de Provision Social* (etorkizuneko Lagun-Aro) sortzen da Arizmendiarietakaren ekimenez.

1960: Irailan *Cooperacion* aldizkariaren lehen alea (etorkizuneko T.U Lankide).

1965: *Liga de Asistencia y Educacion* sortzen du.

1966: ALECOOP jaiotzen da. Ekainean *Medalla al Mérito en el Trabajo* ematen diote urrezko kategorian.

1968: Eskola Profesionala Injinerutza Tekniko Indus-

trial moduan onartzen da. Bere osasun egoera txarraren lehen abisua jasotzen du bihotzeko batekin. Hortik aurrera medikura bisitak eta operazioak ugariak dira. Gutxinaka gutxinaka osasunez okerrera doa.

1976: Azaroaren 29an, arratsaldeko 8.20etan hiltzen da Eskualde Ospitalean.



HAINBAT AKATS

Hain gizon handiak akatsik ba ote zuen galdetzean, hainbat aipatzen dituzte Ormaetxeak eta Larrañagak. "Berak opariak egiten zizkizun baina zuk ezin zenion ezer oparitu; apenas jaten zuen baina ez zizun jan barik pasatzen uzten... bestalde, berak egiten zuenaz harro egoten zen. Berarentzat eskola politeknikoa munduko onena zen" esaten du Ormaetxeak. Larrañagak berriz, "bizigogo anormala zuen. Erlijio-soa izanik, heriotza onartzea kostatzen zitzaion.

Azkenean 1976ko azaroaren 29an utzi zion arnasa hartzeari gaixo egon ondoren. Gaur bere lan izpirituaren lekuko, hor daude kooperatibak, eta kooperatiben fundatzaileen bulego guztietan, bere erretratua. ■

Maidar Egües

tuta genuen. Esaten zuen enpresatik ateratzen ziren irabaziak langileentzat izan behar zirela, eta ez kapitalarentzat. Guk ere horretan sinisten genuen eta jarraitu egin genion".

Jesus Larrañagak berriz, zera pentsatzen du. "Kooperatibaren formula kasualitate hutsa izan zen. Guk ia 3 urte pasa genituen kooperatibei zein formula juridiko eman jakin barik, baina argi genuen boterean langileak egon behar zutela. ULGOR sortu baino lehenago, Arizmendiarietak ULGOR S.A deitzen ziren estatutu batzuk asmatu eta Madrila bidali zituen onartu zituzaten. Estatutuek ziotena ez zetorren bat elkarte anonimoaren ezaugarriekin eta atzera bota zuten. Hori ikusita eta kooperatiben legea aplikatzea posible zela konturatu ondoren, formula horri ekin genion".

Mondra Infantil mailako jokalaria

ASIER GONZALEZ

“11 gol sartu ditut eta beste borrenbeste sartzeko asmoa dut”

— **Zu zara taldeko pitxitxia?**

— Joan zen zapatura arte bai, baina azken neurketan David Espinosak lau gol sartu zituen eta 13 golekina bera da taldeko goleatzailea.

— **Infantilen taldea aurten oso ondo dabil.**

— Bigarren postuan gaude eta horretarako dexente entrenatzen dugu. Gainera uste dut gu beste taldeak baino hobekiago garela.

— **Zer moduz entrenatzailearekin?**

— Nikolas Gonzalez da eta nire aita denez ezin ezer txarrik esan.

— **Nora heltzea gustatuko litzazuke?**

— Lehen mailako talde batera, gustora Real Madril jokatu nuke eta Suker modukoa izan.

— **Preferente mailako taldean jokalaria gustokoena?**

— Oscar Santor “Golo”.

— **Hurrengo partidua?**

— Ber-gara liderraren kontra-neurketa zaila.




ESKUBALOIA Tres de Mayo aurkari



Arrasateko eskubaloia taldea Tenerifera joango da Tres De Mayo taldearen kontra indarrak neurtzera. Partidua zapatuan jokatu da arratsaldeko 6etan. Arrasatearrek denboraldia ondo hasi bazuten ere, azken aldian behera etorri dira eta emaitza kaxkarrak lortu dituzte. Ibon Alzelaiek zuzentzen duen taldea zazpigarren ihardunaldian sailkapeneko azken aurreko postuan dago lau punturekin. Beraz, berriro burua altxatzen hasi eta gorantz egiteko nahi eta nahiez irabazi beharko dute zapatuan.

FUTBOLA Preferente eta emakumeak Atxabalpen zita



Preferente mailako Mondrak EHU taldea izango du bisitari domekan arratsaldeko 3.30etan Atxabalpen. Arrasateko taldearen helburua sailkapeneko goialdeko postuan jarraitzea da, une honetan 5. dago eta 21 punturekin. Kokapena beraz ona da 3. mailara igotzea nahi duen talde baten zatitza eta bide horri eusteko beste aukera bat izango du domekan. Euskal Herriko Unibertsitateak beste 21 puntu ditu eta 4. postuan dago. Neurketa lehiatsua izango da baina ez da ahaztu behar Mondrak etxean emaitza onak lortzen dituela.

Mondrako emakumeak berriz, iparra ezin aurkitu dabilta. Azken hiru ihardunaldietan ez dute punturik eskuratu. Zapatuan arratsaldeko 3.30etan Gernika izango dute aurrean Atxabalpen.

Itxuraz ez dirudi aurkari sendoa baina hori zelaian egiaz-tatu beharko dute Arrasateko jokalariek.

SASKIBALOIA Liderraren kontra oso zaila



Urbina Maltzaga puntu premiaz egon arren, datorren zapatuan ez du horretarako aukera handirik izango. La salle Mahon multzoko liderrak eta Urbina Maltzagak elkarren kontra jokatu dute arratsaldeko 6.15etan Menorkan. Sailkapeneko lehen postuan eta azkenean dauden taldeen arteko norgehiagoka izango da. Horrela ikusita Arrasate puntu barik etorriko dela pentsa daiteke. Neurketa horretarako German Monge entrenatzaileak jokalaria guztiak gertu izango ditu.

RUGBYA Zapatuan Getxo aurrean Garagartzan



Patxi Gorosabelek zuzentzen duen taldea eta Getxo nor baino nor izango dira zapatuan arratsaldeko 4etan Garagartzako zelaian. Getxo Eibarrekin batera multzoko talde sendoenetakoa da. Arrasatek Eibarren kontra ondo jokatu arren galdu egin zuen. Getxorekin ez du zertan berdina gertatu behar eta horretan ahaleginduko dira etxeko ordezkariak. Patxi Gorosabel entrenatzaileak aurten goialdean egoteko taldea dagoela uste du. Gaur arte jokatu dituzten sei neurketetan joko ona erakutsi du Arrasatek nahiz eta hiru partidua galdu.

Euskal Herriko itzulia Arrasaten bukatuko da

Euskal Herriko Itzulia Arrasaten hasi zela bi urte igaro direnean, datorren urteko azken etapa herrian bertan egiteko lanean dabilta Arrasate Txirrindulari Elkarteke kideak. Rafa Etxabek, antolatzaileetarikoa batek esan duenez, asmoa duela bi urtetik dator. "Euskal Herriko Itzulia Arrasaten hasi zenean antolatzaileei bi urte barru bukaera izatea proposatu genien eta baiezkoa eman dute. Alde batetik lehen esperientziak izan zuen arrakasta eta bestetik Itzuliko antolatzaileekin dugun harreman ona, erabakiorrak izan dira bukaera guri egokitze-ko". Antolatzaileendako beraz, erronka ez da txikia izango. "Euskal Herriko Itzulia jendeak uste duena baino inportanteagoa da, nazioarteko rankinean Paris-Nizarekin pareka daiteke. Gainera azken etapa izateak ere badu bere xarma. Azken etapen itzulia erabakitzen da".

AURREKONTUA

97ko Itzulia Legazpian hasi eta Euskal Herriko hainbat toki zeharkatu ondoren apirilaren 11n Arrasaten bukatuko da. Antolatzaileei Garibai kalean amaitzea gustatuko litzaike. Arrasaldean berriz, erloju kontrako froga burutuko litzateke, Fagorretik Gatzagaraino 11 kilometroko ibilbidearekin.

Azken etapa antolatzeke zortzi milioiko aurrekontua behar da, Itzuliko antolatzaileek kanpo lortu beharrekoa. Era berean esan behar da azken etapa antolatzea dela garestiena duen garrantziagatik. Duela bi urte Arrasaten hasi zenean lau milioi



Arrasate txirrindularien topaleku apirilaren 11an.

t'erdiko aurrekontua erabili zen; orain zortzikoa beharko litzateke ideia gauzatu ahal izateko. Diru hori lortzeko antolakuntza hainbat enprekin jarri da harremanetan. Jakin dugunez Fagor Kooperatibaren laguntza izango dute eta horrez gain, Arrasateko Udalera zuzendu dira lau milioiko babes eskatzeko. Une honetan Udalak ez du erantzunik eman eta horren zain daude antolatzaileak. Bide batez Gatzagako Udalak ere milioi bateko laguntza eman du eta Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalei erlojuaren kontrako froga bertatik igaroko denez, beste laguntza bat eskatu diote.

ITZULIAREN GARRANTZIA

Rafa Etxaberekin Eus-

kal Herriko Itzulia Arrasaten bukatzea kirol mailan ezik kulturaren eta ekonomian ere onuragarria izan daiteke herriarendako. "Kontuan hartu behar da erlojuaren aurkako froga zuzenean eskaintzen dela eta Eurosport edo Alemaniako kateen bitartez 17 estatutara heltzen dela. Publizitate hori jakina primeran etorki dakiok Arrasateri eta inguruari".

Gauzak bide onetik badoaz apirilaren 11an txirrindularitzaren topaleku bihurtuko da Arrasate. Euskal Herriko Itzuliko azken etapa prestatzeko 60 laguneko laguntza beharko da. Antolatzaileek uste dute alde horretatik ez dela arazorik izango. Orain euren kezka handiena dirua lortzea da eta horretan dabilta buru belarri.

Andoni Zubizarretari omenaldia

Aretxabaletako UDA eta Mondra taldeen arteko derbia abenduaren 22an jokatu behar bazen ere, atzeratu egin da data eta 24an jokatuko da. Egun horretan UDA kirol elkarteak omenaldi berezia eskainiko dio Andoni Zubizarreta atxalbaltarrari. Omenaldian seguruenera Andonirekin batera Javier Clemente selekzionatzailea izango da. Derbi horretan UDA kirol elkarteak Aretxabaletako semeari urrezko insignia ezarriko dio.

Pilota partiduak Aretxabaletan


UDA kirol elkartearen 50 urteak ospatzeko pilota jaialdia antolatu da Aretxabaletan domekarako. Iturrigorri frontoian eguerdiko 12etan afizionatu mailako neurketa egongo da jokuan. Muruamendiaraz eta Idiakez bikoteak Errasti anaien kontra neurtuko ditu indarrak. Ondoren Asegarce enpresako beste lau pilotari arituko dira lehia. Zabala - Bazeta eta Mikel Goñi - Mendia. Sarrera 500 pezetakoa da.

Goitz Zabala selekzionaria

Mondra emakume taldeko Goitz Zabala jokalaritari 16 urte azpiko selekzioak deitu egin dio. Datorren asteartean Elgoibarren selekzioak egingo duen entrenamenduan hartuko du parte eta aukerata dauden emakumeen artean bere maila erakutsi beharko du aurrerantzean ere selekziozko partaide izateko.

zaldibarko futbitoia

Sarrerak egitea futbitoan eta baita futbolean ere eguneko gauza den arren, sarrera horiek kiroltasunez egin behar dira. Askotan zoroen pare sartzeagatik lesio larriak bizi izan dira Zaldibarren. Azken boladan berriz, itxura denez jokalarien jarrera erabat aldatu da eta hori igertzen da jokoan.



Sarrerak bai, baina kiroltasunez

Laburrak

■ KANPOAN BESTE TALDE BAT

Rotor de Bolbogrado taldea ez zen aurkeztu zortzigarren ihar-dunaldian edo hobeto esanda hiru jokalaria eta atezaina baino ez ziren aurkeztu. Kanean dago dagoneko.

■ ATSEDENA BI TALDERENTZAT

Sortu Informatika eta Me la Pela taldeek atsedena izango dute asteburu honetan. Hauek Kaxi Ganamos eta Rotor de Bolbogrado taldeen kontra jokatu behar zuten baina txapelketatik kanpo daude.

■ NEURKETA INTERESGARRIAK

Astero moduan lau neurketa azpimarratuko ditugu beste guztien artean. Zapatuan Zaldibarren eguerdiko 12etan Aurrera Bolie eta Betrayarren artekoa eta ordubete beranduago Borrock Roll eta AC

Surcosek jokatuko dutena. Iturripen arratsaldeko 2etan Hirei eta Adelaida Aldibi aurrez aurre. Domekan berriz, Zaldibarren 12etan Diego Antonio taldeak Cerveceria Leintzen kontra neurtuko ditu indarrak. Aukera zabala asteburuan futbitoia ikusteko!

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tel.: 79 48 77
ARRASATE

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • AREIXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

MILARIOY

Taberna-jatetxea
Kafetegia

Jostunen afaria

Zuk prezioa jarri eta
guk menua
jarriko dizugu.
Giro jatorra, musika
ona eta txanpaina
gure kontu.

Larrea plaza, 5 behea
Tel.: 77 01 69

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Betrayer	8	8	0	0	54	13	16
Irati STS	8	7	0	1	46	10	14
Abinagraus	8	6	0	2	47	21	12
Aurrera Bolie	8	6	0	2	43	21	12
Galartza kont.	8	6	0	2	39	22	12
Pipwhis	8	6	0	2	33	24	12
Arrogoi taberna	8	6	0	2	28	27	12
Ojo Avisore	8	5	0	3	39	25	10
Lorategi potroak	8	4	2	2	29	22	10
DKB	8	3	3	2	26	21	9
Baneuko	8	4	1	3	20	24	9
Leya	8	4	0	4	26	30	8
Potrosorri	8	3	1	4	25	26	7
Onaniereng	8	3	1	4	14	33	7
Kriskibalda	8	2	2	4	20	24	6
Totem	8	2	1	5	31	36	5
Me la pela	8	2	1	5	21	25	5
Berango sukal.	8	2	1	5	27	35	5
Alai gozokiak	8	1	1	6	12	44	3
Viboras	8	1	0	7	28	41	2
Kaxi ganamos	8	0	0	8	3	28	0
Etxe Mobil	8	0	0	8	3	62	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Insert Coin	8	7	1	0	47	11	15
Cerveceria Leniz	8	7	0	1	51	11	14
Okoretegi	8	6	2	0	53	14	14
Naranja Mecanica	8	7	0	1	53	17	14
Argi Ibili	8	7	0	1	59	19	14
Los Innombrables	8	4	3	1	35	26	11
Jotakabau	8	5	1	2	24	28	11
Ke Oxtias!!	8	4	2	2	31	24	10
Motz	8	4	2	2	34	29	10
ZZPPW7	8	3	3	2	39	33	9
Pepelus	8	2	2	4	27	23	6
La Mosca Gao	8	2	2	4	35	39	6
Diego Antonio	8	3	0	5	29	34	6
Sobre.de Txeira	8	3	0	5	25	37	6
Los Heredia	8	3	0	5	20	30	6
Fosforos	8	2	2	4	24	38	6
Perrahotsa	8	1	3	4	19	26	5
Kinder Konpresa	8	2	1	5	23	41	5
Ganbelas	8	2	0	6	29	42	4
Gualtrapas	8	1	1	6	17	43	3
Elisabeth	8	0	1	7	13	65	1
Hapoel Jamon	8	0	0	8	10	67	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
AC Surkos	8	7	0	1	74	18	14
MSM Ing. Integral	8	7	0	1	38	17	14
Sortu Informatika	8	6	1	1	44	17	13
Nuevo taberna	8	5	2	1	44	20	12
Sokoakoak8	5	1	2	55	30		11
Txeyenex	8	5	1	2	36	22	11
KK Jauriaritzari	8	5	1	2	33	31	11
Los Dimy	8	5	0	3	38	34	10
Orlando Piratas	8	5	0	3	33	36	10
Bedarreta taberna	8	4	0	4	30	21	8
Koka Juniors	8	3	2	3	37	30	8
Anbotoste KT	8	4	0	4	21	23	8
Danok Lagun	8	3	2	3	22	26	8
Adelaida	8	3	1	4	24	33	7
Lautherbrunnen	8	3	0	5	23	34	6
Borrock'n roll	8	2	0	6	44	46	4
Cartonajes Igamo	8	1	2	5	17	29	4
Bukanak	8	2	0	6	21	45	4
Hirei	8	2	0	6	22	48	4
Tronkoteak	8	2	0	6	16	37	4
Rotor de Bolbo.	8	1	1	6	7	41	3
Iluna taberna	8	1	0	7	24	65	2



HORI BAI POZA! Golak ospatzeko era desberdinak daude: lurrean etzan, kamiseta buruan jarri, txatxilipurdi egin, harmailtara igo... Zaldibarko lagun honek eskuak altxatu eta zerura begiratzea aukeratu du. Denak jakina baliogarriak gola ospatzeko!

Emaitzak

A taldea

Irati STS 4 - Me la pela 1
 Kriskibalda 3 - Lorategi Potroak 5
 Arrogoi taberna 2 - Alai gozokiak 1
 Ojo Avisore 2 - Aurrera Bolie 7
 Betrayer 4 - Baneuko 2
 Abinagraus 2 - Berango sukal 5
 Leya 3 - Galartza Kontenedoreak 5
 Potrosorri 8 - Etxe Mobil 1
 DKB 5 - Viboras 7
 Pipwhis 5 - Totem 3
 Onaniereng 1 - Kaxi Ganamos 0

B taldea

Motz 4 - Perrahotsa 1
 Insert Coin 7 - ZZPPW7 3
 Ganbelas 2 - Los Innombrables 7
 Ke Oxtias!! 4 - Kinder Konpresa 2
 Argi Ibili 9 - Sobredosis de Txeira 4
 Okoretegi 5 - La Mosca gao 2
 Jotakabau 0 - Diego Antonio 7
 Cerve. Leniz 11 - Hapoel Jamon 0
 Naranja Mecanica 10 - Fosforos 3
 Pepelus 9 - Elisabeth 4
 Los Heredia 1 - Gualtrapas 0

D taldea

Danok Lagun 3 - Bukanak 1
 Bedarreta tab. 2 - Cart. Igamo 4
 Orlando Pirates 0 - MSM Ing. Int. 6
 Iluna taberna 2 - Nuevo taberna 18
 Lautherbrunnen 4 - Koka Juniors 7
 Sokoakoak 4 - Sortu Informatika 4
 Rotor de Bolbo. 0 - Anbotoste KT 1
 Txeyenex 4 - Borrock'n roll 7
 AC Surkos 6 - Los Dimy 3
 KK Jauriaritzari 4 - Hirei 3
 Adelaida Aldibi 2 - Tronkoteak 3

Hurrengo partiduak

8. ihardunaldia

Azaroak 30, larunbata

Zaldibar

8.50 Elisabeth - Los Heredia
 10.00 Danok Lagun - Bedarreta taberna
 11.00 Los Innombrables - Ke Oxtias!!
 12.00 Aurrera Bolie - Betrayer
 13.00 Borrock'n roll - AC Surkos
 14.00 Lorategi Potroak - Arrogoi taberna
 15.00 Kinder Konpresa - Argi Ibili
 16.00 Berango Sukaldeak - Leya
 17.00 Perrahotsa - Gualtrapas
 18.00 Koka Juniors - Sokoakoak
 19.00 Fosforos - Pepelus

Iturripe A

11.00 Motz - Insert Coin
 12.00 Cartonajes Igamo - Orlando Pirates
 13.00 Galartza kontenedoreak - Potrosorri
 14.00 Hirei - Adelaida Aldibi
 15.00 ZZPPW7 - Ganbelas
 16.00 Baneuko - Abinagraus
 17.00 Anbotoste KT - Txeyenex

Iturripe B

13.00 Los Dimy - KK Jauriaritzari
 14.00 Etxe Mobil - DKB
 15.00 Sobredosis de Txeira - Okoretegi
 16.00 Nuevo taberna - Lautherbrunnen
 17.00 Irati STS - Kriskibalda

Abenduak 1, Igandea

Zaldibar

8.50 MSM Ingenieria Integral - Iluna taberna
 10.00 La Mosca Gao - Jotakabau
 11.00 Bukanak - Tronkoteak
 12.00 Diego Antonio - Cerveceria Leniz
 13.00 Alai gozokiak - Ojo Avisore

Iturripe A

11.00 Viboras - Pipwhis
 12.00 Hapoel Jamon - Naranja Mecanica
 13.00 Totem - Onaniereng

JAVIER ETXAGIBEL (VICTORIANA ESPECTACULOS-EKO GERENTEA)

“Ikusentzutekoen kontsm

Zinemako zuzendari izateko ikasi nahi zuen, baina ausartu ez eta azkenean, ekonomika ikasketak egin zituen. Geroago, hala ere, Javier Etxagibel arrasatearraren afizioak eta lanbideak bat egin zuten. Orain dela hiru urtetik “Victoria de Espectaculos”eko gerentea da, eta ondorioz, Gasteizko Guridi eta Samaniego zinemen gestioa eta programazioa darama. Antzerkigintzari buruz ere luze aritzeko gai den arren, oraingoan zinemaren gainean galdetu diogu.

- Zelan erosten dira pelikulak?

- Hori ulertzeko negozioa zelan antolatuta dagoen azaldu beharra dago. Alde bate-tik “mayors” deritzaion zinema dago, hau da, jatorri ipar

amerikarrek multinazional garrantzitsuena.

Bestalde zinema independientea deitzen dena dago, eta talde horretan estatu espainiarreko hainbat banatzaile-lerena. Azken hauek zera egiten dute: Ipar Amerikako banatzaile batzueri pelikulak erosi, ondoren eurek zabaltzeko. Bukatzeko, erabat independienteak diren banatzaileak daude, produktora independienteen filmak erosten dituztenak.

Programazioa finkatzera-koan, hiru taldetako pelikulak

eskuratzen ahalegintzen gara, ahalik eta jende gehienengana heltzeko. Gu beti saiatzen gara banatzaile independienteen filme pare bat eskuratzen, pelikula horien ikusleak izaten dira programazioaren kalitatea baloratu, eta urteko hilabete guztietan zinemara joaten direnak eta.

- Baina prozesua zein izaten da?

- Pelikula bat egiten hasi aurretik eta egiten ari direnean ere, filme horren berri izaten dugu. Bukatuta dagoenean, berriz, filmea ikusten dugu eta enpresa bakoitzak filme horrek zenbaterainoko arrakasta izan dezakeen aztertzen du. Ondoren banatzaileekin negoziatzen da, eta pelikula batek erakar dezakeen ikusle kopuruaren

“Urtez urte ikuslearen gustoa aldatuz doa. Biolentziadun filmeek, adibidez, gero eta ikusle gutxiago dute”



...smoa geldiezin da”

arabera, enpresa bakoitzak zine aretoko gela handiengan edo txikiengan eskainiko du filme hori.

- Zer ikusi nahi du ikusleak?

- Urtez urte ikuslearen gustoa aldatuz doa. Biolentziadun filmeek, adibidez, gero eta ikusle gutxiago dute. Zine moeta horrek telebistan edo bideoan du tokia, baina orain, zinemara doanak edukia duen istorioa ikusi nahi du. Gasteizen, esaterako, Transpotting filmek Independence Day-k baino 1.000 ikusle gutxiago izango ditu. Tarte hori orain dela urte batzuk handiagoa izango litzateke. Ikusleak istorio on bat ikusi nahi du, ondoren bere bizitzaren eta filmean artean pareko-

tasunak bilatzeko, eta ez zaio inporta zenbat diru gastatu den filme hori egiten.

- Deba Garaitik jende asko joaten da Gasteizeko zinemetara?

- Deba Garaitik urtean gutxi gorabehera 50.000 ikusle joaten dira Gasteiza, eta horietatik asko arrasatearrak dira. Arrasaten maila kultural handia dago, baina herriak ez du eskaintzen maila hori asetzeko beste ikuskizunik, eta horregatik jendea kanpora ateratzen da.

“Arrasaten maila kultural handia dago, baina herriak ez du eskaintzen maila hori asetzeko beste ikuskizunik”

- Zein adineko jendea joaten da zinemara?

- Ikusleak amaren edo izebaren eskutik hasten dira zinemara joaten, eta gero lagunekin joaten dira. Zine gehien, berriz, unibertsitatera heltzerakoan kontsumitzen da. Ondoren, kontsumo hori orekatu egiten da, eta lehenengo umea edukitzen denean zinemara joateari uzten zaio. Seme-alabak sei urte betetzen dituenean, berriro ere zinemara itzultzeko joera dago.

- Zelan dago estatuko zinemagintza?

- Estatuko zinemagintzaren arazo handiena zera da: ez dela produktorearen figura garatu, eta beraz, nahasketa dago gestio enpresarialaren eta artistikoaren artean. Gainera, ez dago dirua inbertitzeko gertu-

dagoen enpresari talderik, eta hori antzerkian eta musikan ere gertatzen da. Hemengo zinemagintza dirulaguntza publikoari lotuta dago, eta hori filmeetan asko igartzen da. Bestalde, antzerkigintza oso ahul dago, eta ondorioz, ez dago zinemarako aktore-aktosarik.

- Zein etorkizun ikusten diozu zinemari?

- Ikusentzutekoen kontsumoa geldiezin da, eta buruan beti zinema egongo da. Zinemak definitzen du pelikula baten kalitatea. Etorkizunean ere, bideozintza eta telebista zinemaren menpe egongo dira, baina zinemak ere beste bien beharra izango du. Datozen hamar urtetan zinemaren osasuna ona izango dela uste da, baina bideoaren etorkizuna ez da hain segurua. Ikusi egin behar bideoarekin zer gertatzen den...



Kabia
ALTZARIAK



Erreformagatik guztia merke baina merkeago!

Prezio sinestezinak!

Aukera aparta!

Zatoz ikustera!

Al Andalusen egoitza berria

Arrasateko Andaluzia txikia Musakolan


Al Andalus kultur etxe andaluziarrak bere egoitza berria estreinatuko du domekan, 930 m²ko egoitza handia. Orain arte Erguinen izan duenarekin konparatuz gero (150 m²), bien artean ez dago apenas antzekotasunik.

Dena dela, gastu handia ekarri die egoitza zaharretik berrira pasatzeak, ia 86 milioi pezetakoa. Gainera, kultur etxeak ez du inolako dirulaguntzarik izan ez Andaluziako gobernutik eta ezta Arrasateko Udaletik, bi erakundeek ekintzetarako baino ez diote dirulaguntzak ematen eta. Diru gastu horren zati handiena bazkideen laguntzarekin eta elkarteak berak aurreratuta zuen diruarekin instalatzea lortu dute eta gainontzekoa 18 milioiko kreditu batekin.

Al Andalusen egoitza berrira sartu bezain laister giro andaluziarra somatzen da. Mahaiak eta aukiak Huelvako Galaroza herritik ekarri dituzte eta hango ohitura denez, aukiek eneazko ipurdia eta egurrezko bizkar luze eta apainduak dute. Rafa Gomezek, Al Andalusko lehendakariak esaten duenez, garrantzi berezia eman nahi izan diote dekorazioari, horren lekuko, saloi nagusiaren erdian jarri duten andaluziar iturri tipikoa: ura dariola. Rafak esaten du "uraren zarata entzunda Generalifeko parketik pasiatzen ari zarela dirudi".

BANAKETA

Beheko solairuan sukalde, komunak, taberna eta ekintzetarako saloi handia dago (eszenatokia barne). Goian berriz 180 m²ko libu-



Beheko solairuan Andaluziako dekorazio tipikoko saloi handia dago eta erdian iturria.

rutegia (bertan ikastaroak eman eta hartzeko asmoa dute, euskara ikastaroa adibidez), 70 m²ko entsaiu gela, kapera, egongela, eskulane-tarako gela eta bi bulego, bata gazte batzordearendako. Rafak azaltzen duenez, etxea bi zatitan banatzen da: behetako zati folklorikoa, festetarakoa da eta jende guztia-erentzat zabalik; goikoa berriz

zati kulturala da, bazkideendako bakarrik.

Kultur etxeak gaur egun 430 bazkide inguru ditu baina egoitza berriarekin 500eko kopurua gainditzea espero dute, azken hilabeteen adibidez 27 lagunek eman dute izena.

INAGURAKETA

Egoitza berriari merezi-

tako inauguraketa egin nahi diote domekan eta horregatik Andaluziako Juntako lehendakaria, Manuel Chaves eta Ardanza gonbidatu zituzten. Hauek ezin etorri izana adierazi dute baina Rafak azaltzen duenez, "aurrerago etortzeko gogo handia daukate". Beraz, Andaluziako Juntako Kontseilaria Carmen Calvo Bollatorekin eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua Mari Karmen Garmendiarekin daude harremanetan domekan etor daitezten. Horiez gain, Xabier Zubizarreta ere joango da eta Deba Garaiko alkate guztiak gonbidatuta daude. Andaluziako alkate batzuen etorrera ere espero da. Inagurazioa 12etan hasiko da. Gonbidatuei lokala erakutsiko zaie eta eguerdian andaluziar bazkari tipikoa egingo da. Arratsaldean Al Andalusko taldeek emanaldia eskeinitako dute egoitzan bertan, eszenatoki berrian.

Rozioko Amabirginari errespetua

Euren estatutuarekin erlijioarekin lotutako gaiak debekaturata egon arren, Rozioko Amabirginari txoko berezia egin diote egoitza berrian. Gainera, lokal zaharretik berrira ez zuten traste bat gehiago moduan eraman nahi izan eta horregatik joan den domekan kitarra eta kantuekin batera jarri zuten toki berrian. Rafa Gomezek esaten duenez, "Rozioko Amabirgina erlijioa baino zerbait gehiago da. Izan ere, irudia erosi genuenean, sinestunak ez direnek ere jarri zuten dirua. Orain oso txoko polita egin diogu, merezitako txokoa, aurreko lokalean oso gaizki zegoen eta".

JOSE ANTONIO ASPIAZU

“XVI. mendean, Arrasateko altzairua Europa osora eramaten zen”


Arrasateko Udalak Jose Letona beka eman dio Jose Antonio Aspiazuri Arrasateko altzairuaren historiari buruzko ikerketa egiteko. Legazpiar hau Oñatin bizi eta bertako Nazioarteko Lege Soziologiako Erakundearen egiten du orain dela 8 urtetik. Filosofia eta Letra ikasketak egin zituen eta Julio Caro Barojarekin Antropologia Historiko doktoradutza.

— Zein garaitan kokatuko duzu ikerketa?

— XV. mende bukaeratik XVII. mendera artean, baina batez ere XVI. mendea jorratuko dut. Mugimendu industrial handia egon zen orduan Arrasaten, nahiz eta gehienek garai hartan Arrasaten lau baserri baino gehiago ez zegoela pentsatu. XVI. mendean altzairuaren industria oso garrantzitsua zen hemen inguruan eta Europaraino zabaltzen zen.

— Zenbaterainoko garrantzia zuen Arrasateko altzairuak?

— Arrasaten egiten ziren ezpatak Toledora eramaten ziren. Suzko armen piezak ere Arrasateko altzairuarekin egiten ziren, adibidez, mosketoen eta arkabuzen giltzak. Espainiar inperioaren ejerzitoak erabiltzen zituen arma txikiak Deba Arroan egiten ziren eta altzairua Arrasatekoa zen. Armak ezezik, altzairua barretan edo piezatan ere bidaltzen zen kanpora. Bezero garrantzitsuenak frantziarrak ziren. Hemendik eramaten zen *La Rochelle*, *Nantes* eta beste herri batzuetara... Anekdotak moduan aipa daiteke Bizkaiko meatzetan Arrasateko altzairuak zuen kalitate berebera egin nahi zutela eta hemengo izenarekin saldu, baina Arrasateko kofradiek eta Udalak ez zieten utzi, bestela hemengo aipamena eta ohorea galtze-



ko arriskua zegoelako.

— Altzairugileek non lantzen zuten altzairua?

— Lantegi handirik eta enpresarik ez zegoen, baina bai familia tailerren antzekoak. Armagintzan berriz, bazegoen maixua eta honek lau edo bost langile izaten zituen gremio bakoitzean berarendako lan egiten. Gremio bakoitzak pieza desberdinak lantzen zituen. Tailerrak etxe azpietan egoten ziren, Ferrerías kalean etabar.

— Ze bibliografia kontsultatuko duzu zure ikerketarako?

— Zoritxarrez oso bibliografia gutxi dago eta behar bada horretan datza lanaren berezitasuna. Lehenengo Oñatiko Unibertsitateko protokoloak aztertu nituen, baita Arrasatekoak ere. Tolosako epaitegi artxibategira ere jo izan dut pleitoak kontsultatzeko, eta baita Arrasateko udal artxibategira. Urruti joanda, Valladoliden izugarriko materiala aurkitu dut guzti hau garaitzeko. Pleitoen azkenengo errekurtsioak hara joaten ziren eta, haraino bidaiak egin behar izan ditut kontsulta egiteko.

aste gazte

■ BEKAK

• Robert S. McNamara postgradu ikerketa beka kale-ratu dira, garapen ekonomikoarekin erlazioa duten alorretan lan egiteko. Epea: abenduak 31.

• Lan eta Gizarte Arazoetako Ministeritzak, Artxibistika eta Dokumentazio lanak burutzeko dirulaguntzak aurrikusi ditu, lizentziatu unibertsitariarientzat. Eskariak aurkezteko epea: abenduak 30.

■ LANA

• Zamudioko Udalak gaztelania-euskara itzultzaile bat behar du. Eskariak luzatzeko epea, abenduaren 4an amaitzen da.

• Zegama eta Mutrikuko Udalek, bitarteko idazkari-kontuhartzaile bana behar dute. Epea: abenduak 4 eta 5.

• Deba Garaiko ospitalak, kudeaketa ekonomikorako zuzendari lanpostua eta langileen zuzendari lanpostua betetzeko beharra du. Epea: Abenduak 7.

• Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Mankomunitateak, gizarte laguntzaile bat eta administrari laguntzaile bat behar ditu. Epea: abenduak 13 eta 14.

■ LEHIAKETAK

• Argazki lehiaketak: a) Barañaingo (Nafarroa) Udalak, VIII. Argazki Lehiaketa antolatuko du, gai librean. Epea: abenduak 8. b) Iruñeako Anaitasuna elkarteak, mendia, ingurugiroa eta naturarekin zerikusia duten argazkiak saritu nahi ditu. Epea: abenduak 10.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Espainiar inperioaren armak Deba Arroan egiten ziren Arrasateko altzairuarekin

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- San Josepe auzoan etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.
- Las Malvinas-en etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.

• Atikoa duen etxebizitza salgai Erdiko kalean. Biak jantzita daude. Guztira 125 m². Tel.: 76 30 01.

• Musakolako Nao de Santiago kalean etxebizitza salgai. Tel.: 79 56 20.

2. Erosi

- Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

3. Errentan emateko

• Ikasleendako aproposa den pisu handi bat alokatzen da Erguin kalean. Tel: 79 22 79.

• Ola auzoko 37. zenbakian erdi jantzita dagoen etxea alokatzen da. Tel: 79 78 10.

• Pisua alokatzen da Munar auzoan. Tel.: 79 77 85.

• Guztiz jantzita dagoen pisua alokatzen da Aldaien. Tel.: 79 61 62.

• Ikasleendako pisua alokatzen da Ferrixalekuan. Tel.: 79 12 20.

5. Etxe konpartituak

• Pertsona bat behar da Oñatin pisua osatzeko. Deitu gauz 78 16 63 tñora. Karmen.

• Lagun bat behar da Eskolatik gertu dagoen pisua osatzeko. Urtarriletik aurrera. Tel.: 77 14 26.

GARAJEAK

7. Saldu

• San Andresen garaje plaza salgai. Tel: 79 73 82.

• Roneoko etxeetan garaje bikoitza eta itxia salgai. Tel: 79 14 66.

9. Errentan emateko

• Garage itxia alokagai Roneon. Dei egin gaueko 10.30etatik aurrera. Tel.: 79 19 64.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Larringain kalean garajea alokagai. Tel.: 79 98 07.

• Larrea aldean garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 69 41.

• Maala kalean garaje itxia alokagai. Tel.: 79 42 13.

LOKALAK

12. Saldu

• Lokala salgai Erguinen, orain drogadenda bezala dago. Tel: 79 89 53.

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel: 79 06 82 eta 79 46 20.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel: 79 28 01.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabilta. Kamioi bat

sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

LANA

17. Eskaintzak

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel: 79 54 06.

• Bi neska jator arratsaldean lan egiteko gertu. Propaganda banatzen onenak gara eta konfidantzazkoak. Tel: 79 52 37 eta 79 74 71.

• Mutila gidari lanak egiteko gertu. Tel: 77 04 20.

• Bergaran taxi plaza eskualdatuko nuke. Tel: 76 44 04.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke. Tel: 79 95 96.

• Nazio eta nazioarteko merkantzia titulua ajentzietatik alokatzeko prest edo lanpostu baten trukean aldatzeko prest. C-2 gidatzeko karneta ere badut. Tel: 79 72 46.

• Kanguro bezala lan egingo nuke ostiral eta larunbatetan. Tel: 79 12 00. Agurne.

• Neska lana egiteko prest. Tel: 77 02 70.

• Emakume gaztea tabernatan, etxea garbitzen edo umeak zaintzen hasiteko gertu. Tel: 79 67 30.

• Etxeko lanak egiteko neska prest. Tel.: 79 60 62. Mentxu.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 76 27. Maite.

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 68 77. Ester.

• Titulodun eta esperientziadun neska klase partikularrek emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

• Ingeleseko klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 79 03 83.

• Fiseoterapeuta diplomaduna etxeko terapiak egiteko gertu: masaiak, erreabilitazioa, drenaje linfatikoa... Tel.: 79 59 86. Ane.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Te.: 79 34 09. Amaia.

18. Eskaerak

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel: (945) 44 50 86.

• Harategian esperientziadun mutil bat behar da. Tel: 77 07 02.

• Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldean. Tel: 79 71 34.

• Neska euskalduna gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel: 79 81 82.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisis, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Pianoko klase partikularrek ematen ditut maila guztietan. Tel: 79 24 14.

• LH, DBH eta REMeko klase partikularrek emango nituzke. Euskaraz, jakina! Dei egin iluntzeko 8etatik 9etara. Tel: 79 33 39.

• EGA titulodun injeritutzako 2. mailako ikasle batek OHoko klase partikularrek emango lituzke. Tel: 79 64 03.

• Ingeles filologian diplomaduna kla-

se partikularrak emateko gertu. Tel: 79 59 16.

• Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Tel: 79 94 04. Mari Jose.

• EGA titulodun ikasle batek LH, DBH eta REMeko klase partikularrak emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel: 79 83 33.

MOTORRA

23. Saldu

• Niva Lada SS-AB autoa salgai. Tel.: 79 15 58.

• Ford Scort autoa salgai. 30.000 km. Egoera ona. Tel.: 79 22 92.

• Fiat Tempra 140 SX autoa salgai. Tel: 77 06 48. Gaueko 9etatik 10etara deitu.

• Seat Malaga salgai, 98ra arte ITVa gaindituta dauka. 300.000 pta. Tel: 79 78 10

DENETARIK

26. Saldu

• Antigualeko zapatak josteko makina eta zapatak konpontzeko makina salgai. Historikoak dira. Tfnoak: 71 50 72 edo 79 81 70.

• Estreinu barik dagoen 3/4 bisoizko txaketoia salgai. Tel: 79 45 86.

• Logela berri bat salgai. 2 ohe eta bi mesanotxe. 20.000 pta. Tel: 79 78 10

• 1.05ko ohea, sekreterra eta mesanotxea dituen logela salgai. 15.000 pta. Tel: 79 78 10.

• Estreinu gabeko Lur Hiztegi Entziklopedikoa salgai. Tel: 79 87 47.

• Haur kotxea, aulkia eta kapazoa salgai. Burguja eta poltsa oparituak da. Tel: 79 90 03.

• Fostex 280 lau pistatako grabagailua eta Yamaha RX8 erritmo-kutxa salgai. Tel. 78 90 70. Gaeuz.

• Komunerako manpara ia berria salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Ordenadoreendako D7 West jokoak salgai. 6.500 pta. Interesatuak dei egin asteazken edo ostiraletan arratsaldeko 5etatik 7.30etara. Tel.: 79 68 85.

• Ezkontzeko soinekoa salgai. Taila: 40-42. Tel.: 79 55 28.

• 4x12 pulgadako Marshall bafflea salgai. 1960ko modelokoa. 50.000 pta. Egoera onean dago. Tel.: 14 79 79. Joseba.

• 28 mm.ko objektiboa salgai. 8.000 pta. Tel.: 79 05 64.

• Sukaldea salgai. 10.000 pta. Dei egin denda orduetan 79 23 40 telefonora.

• Pinu egurrezko 10 ate salgai prezio onean. Tel.: 79 23 97. Rafael.

27. Erosi

• Logela batendako arropa gordetzeko bigarren eskuko armairua erosiko nuke. Tel: 79 78 10.

• Bigarren eskuko baxua eta anplifikadorea erosiko nituzke. Tel.: 79 53 42. Jabi.

31. Galdu

• Azaroaren 16an ambar harria duen zilarrezko belarritako bat galdu nuen. Tel.: 79 53 21.

33. Bestelakoak

• Zaldi bat zure esku 10.000 pta. hilean ordainduz gero. Tel: 76 30 01.

• Tarot kartak irakurtzen ditut. Tel: 79 82 55.

HARREMANAK

34. Agurrak

• "Buenas" laster helduko dira berri onak eta nahi duguna lortuko dugu. (J.L.S.). Zorionak urte askotarako txiki.


37. Bestelakoak

• Bergara-Donostia, arratsaldeko 5etan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tel: 76 46 26 (Nekane).

Etxe Aundi

Hotela**  Jatetxea


Torreauzo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



*Gaur ez bada,
bihar
ezkonduko
zara...
Etxe Aundin
zure zain
gaituzu.*

■ Bego Zubia

EGIN EGUNKARIKO GIZARTE SAILEKO ARDURADUNA



Santamas egunean jaio zen orain dela 31 urte Arrasaten. Kazetaritza ikasketak Leioan egin zituen eta 1992tik Egin egunkariko Gizarte saileko burua da. *Txubi* deitzen diote bere abizenagatik.

1. Zein da zure horoskopoa? Capricornio.
2. Sinestuna zara? Ez.

3. Animalia bihurtzekotan? Arrano.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Jenioa/gauza bera.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Jen-de askoren aurrean zerbait egin beharrak, adibidez.
6. Amets bat? Euskal Herri libre eta euskalduna errealitate izatea gustatuko litzaidake.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Ahulagoak zapaltzeko pertsonak eta herriek erakusten duten joera.
8. Gertakizun historiko bat? Argi indarraren aurkikuntza.
9. Nor miresten duzu? Pentsatzen dutenarekin koherente direnak.
10. Zeri diozu beldurra? Bakardadeari.
11. Zertaz damutzen zara? Egindakoari eusten saiatzen naiz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Zinean.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Hondartza.
14. Eta zuri? Etxe bat.
15. Lanbidez aldatzekotan? Basozain.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Zaldibar.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Hizkuntzak ikasi.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Lanak behartuta, egunero zortzi bat. Jaiegunetan, *Egin*.
19. Gustoko janari bat? Arroza.
20. Liburu on bat? *Otto Pette*.
21. Filmerik onena/txarrena? *El cartero y Pablo Neruda/Asko*.
22. Musika talderik onena/txarrena? Pertsona beste gusto daude baina Ruper asko gustatzen zait/Ez dakit.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Dr. Livingstone supongo/Lo que necesitas es amor*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Kape-la bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Ibiltzen.
26. Oporretarako toki bat? Oporretarako edozein leku da ona baina auke-ratu behar izanez gero, irla bat.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Komuna garbitzea.
28. Gomendio bat? Ez egin kasu esango dutenari.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizi-tza? Inoiz ataka horretan aurkituz gero, jakingo dut.
30. 200 milio irabaziz gero? Mundua eza-gutu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Osinaga-Bedoña-Larrino-Txaeta Anporretarrak Andramari zuriraino

Patxaran taldea

Goizeko 9:00ak dira. Anporretarrak sukaldean gosaltzen ari dira. Arkaitz eta Haizea triste daude, Kurtzebarrin edurretan ibiltzeko plana pikutara joan zaie eta .

Patxi, ostera, animoso dago eta beste buelta polit bat proposatu dio familiari. Eta Anttonik gaztetxoak animatu ditu. Katiuskak eta aterkinak gertu ditu Patxik balkoian.

Egarreko aldapan behe-
ra doaz eta bidekurtzean, Osina baserriko bidea hartu dute. Zubitik pasatzean, Anttonik gogora ekartzen du lehen bazela leku hartan presa bat, eta Osinako errotara garia ekartzen zela, uruna egiteko.

Bariante azpitik pasatu ondoren, Haizeak, "Pinto" askatu eta berehala Osinako tontorreko aldapan gora takarradan eta saltoka igo du. Aldapan gora goaz eta Aritzek arnasestuka galdetu du, Zer ete dira poste larur horiek?. Gure etxera heltzen den gas naturalaren hodiak direla komentatu dio Anttonik. Begira, goiko baserri hartatik pasatuko gara! Baiiii...

Haizea eta Pinto zain dagoz, Asuelako bidekurtzean nora jo ez dakitela. Patxik makila gorantza eta ezkerreantza jasota Bedoñako bidearen berri eman die haurrei. Baserri azpitik pasatzerakoan, sudur puntatik jausten zaizkion izardi tantak mosuzapiarekin kendu ditu Patxik. Nongoak dira baserri horiek? -galdetu dute haurrek. - Bedoña auzokoak dira! , jarraitu aurrera; hemendik Bedoñaraino dena lau-lau

dugu eta segituan bertan izango gara. Errebuelta itxi baten ostean bide zaharraren aztarnak azaldu dira. Handik urrean Malbe baserriko sagastiak, artadiak, urritzak, gorostiren bat eta hainbat arbola. Baserria bera jausita dago.

Bedoña auzoan elizaren ondoan pelotatik txiki bat; atsedenditxoa egin dugu eta baita pelotan jokatu ere.

URKULURA

Aurrera jarraitu eta Solo-gaiztoren GMC kamioi txikia ikusi ostean Larrinoko bidea hartu dugu. Anttoni atzean gelditu da Bedoña zuloko zelai

ederrak ikusteko-edo. Patxik bidetxurra hartu baino lehenago itxaron dio eta biak batera ezkerreko bidetxurretik hartu dute. Handik metro gutxira Arkaitz, Haizea eta pinto zain, nondik joango gara?. Anttonik eskumatik dela esan die eta berehala saltoka eta harrapatata badoaz. Larrinoko transformadore zaharraren ondoko bidea hartu eta zelai artetik, aretxak, gabonetarako pinu landarak, eta baita lurrean botata dauden erabilitako kartutxoak ikusi ere, baserri baten ondora heldu gara. Ezkerrean jarraituta elizara joaten da eta handik behera Urkulu-


ra. Gaur Larrino-Etxebarritik jarraituko dugu. Ezkerrean Pinto!

Baserriko ate ondoan bidea amaitu eta, basoko bidea jarraitu dugu. Eskerrak katiuskak ekarri ditugula, zeren pinuek atartzeko erabiltzen diren traktore hauek pista guztiak izoratu dituzte. Handik 500 metrora ezkerreko pista hartuaz bat lokatza gutxitu egiten da. Laister Txaetako arana ikusi dugu. Orain hara behe-
ra jeitsi behar gara. Aldapa honetar, benetan belaunak sufritu egiten dute, komentatzen du Patxik.

ANDRAMARI ZURIN

Benga karrozak, gu pista-
ra heldu gara! Harizko pista hartu eta beherantz segitu dugu, konturatu orduko Andramari zuriko ermitan gaude. Zubi gaitetik erreka begira gelditu gara. Apur bat atzera jo eta ezkerreantza hartu dugu lehenengo kurtzean eta baita hurrengo kurtzean ere. Harizko pista jarraituaz aldapa gora Azuelako bide kurtzera bueltatu gara berriz. Hemendik aurrera aldaparik gabeko bidea segitu dugu.


Gure bide azpitik porlaneko posteak ikus litezke. Poste hauek Jaturabetik, Unión Cerrajerara argi indarra ekartzeko jarri zituzten. Berehala Antzarriartuko metal ura duen iturrian trago bana hartu dugu, itxaroten gauden bitartean Arrasateko ur depositoko obrak ikusi ditugu. Aurrera segitu dugu eta erromara bat pasatu ondoren Auspubaltzeko zelaitik doan bidetik jeitsi gara asfaltozko bideraino. Zaldibarko auzoa ikusiaz, Arrasatera iritsi gara.



■ Horoskopoa

- **Aries** Zer egin eta nora joan ez daki-zula ibiltzen zara.
- **Taurus** Goregi jartzen duzu listoia eta askotan ezin iritsi ibiltzen zara.
- **Gemini** Zure krudeltasunak batzuetan ez du neurririk.
- **Cancer** Artzaia dirudizu artilezko jertsea janzten duzunean.
- **Leo** Hitzak haizeak eramaten dizkizu. Argi, beraz!
- **Virgo** Horoskopoa begira? Ez diozu inoiz kasurik egiten eta!
- **Libra** Segi lanean, laster fruituak jasotzen hasiko zara eta.
- **Scorpio** Gorria da pasioaren kolorea baina baita zure masailena ere.
- **Sagittarius** Unerik ilunenetan ere argi txiki bat ikusten da.
- **Capricorn** Ondokoaren txutxumutxuak entzutea larregi gustatzen zaizu.
- **Aquarius** Modan joaten zarenik ezin ukatu. Baina zein urtetakoan?
- **Piscis** Etxeko atea zabaltzen hasi eta tinbrea jo?

■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Pello, EAko gazte-en idazkari nagusia. 8. Galesen mintzatzen den hizkuntza. 10. Piztia ez den animalia ugaztuna. 11. Idi hitz elkartuetan. 12. Radioa. 13. Pilotaz jokatzeko kirtendun ohola. 15. Itsasotik bizi dena. 18. Benetan jazoia edo gertatua. 19. (Ald.) Pagatu.

Bertikalak 1. Ugaldu. 2. Marokoko hiriburua. 3. Bilo. 4. Zein gauza. 5. Mikroorganismo patogenorik eza. 6. Musika eskalako bigarren nota. 7. Muki-jario eragiten duen gaixotasuna. 9. Bulgariako mendebaldeko mazizoa. 14. (Ald.) Egun jakina. 16. Izaera edo zentzu egokia. 17. Agitu aditzaren infinitiboa.

16. Sen. 17. Agi.
Bertikalak: 1. Ugaldu. 2. Rabat. 3. Ite. 4. Zer. 5. Asepsia. 6. Re. 7. Katarro. 9. Rila. 14. (ald.) Data. Ordaindu.
Horizontalak: 1. Urizar. 8. Galesera. 10. Aber. 11. It. 12. Ra. 13. Pala. 15. Itsastar. 18. Egia. 19. (Ald.)



LORAMENDI


ESKI OFERTAK!!!!

Alpino, snowboard eta trabesian.
Jaso katalogo berria!
Konponketa tailerra martxan.



ROSSIGNOL

- Rossignol C-4K eskiak 17.630
- Rossignol FD-60 fijazioa 11.160
- Tecno Powder Ad. bastoia 1.990
- Guztira ~~20.780~~
- MULTZOA **21.900**




ROSSIGNOL

- Rossignol DV5-K eskiak 24.990
- Rossignol FD-70 fijazioa 13.950
- Rossignol Aosta bastoia 2.600
- Guztira ~~41.540~~
- MULTZOA **31.900**



SALOMON


- Salomon Evolution 7100 eskia 48.990
- Salomon Quadrax 800 16.990
- Guztira ~~65.980~~
- MULTZOA **54.900**



Txus Congil Astebeten

1 31 aita-amek hartuko dute parte atzo bertan hasi ziren Gurasoen arteko Topaketetan. Drogomenpekotasunen prebentzioa abian, komunikazioa, autoestima, eskola, familia, aisialdia eta sexualitatearen gaineko zazpi eztabaida saio izango dituzte. Esperientzia honek eman dezakeenaren aurrerapen gisa, topaketon dinamizazioaz arduratuko den *Izadia* gabineteko Txus Congil arituko zaigu gaur *Astebete* saioan.

Beste gai batzuk ere ikutuko ditu Patxi Monterok gaurko saioan, besteak beste, arratsaldeko plenoa.



Arrasate Irratia

EGUNERO

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina: aktualitateari lotutako gaiak: datorren astean sexu tailerrari, Euskadiko Antzerki Topaketei eta arrazakeria eta xenofobiari buruzko elkarrizketak.
14.30 Bixau orduan

ASTELEHENA

22.00 Caravanserai musika saioa.

ASTEAZKENA

22.00 KK2A

OSTEGUNA

21.00 Adi Egon: Intsumisioa
22.00 Txerrendantza

OSTIRALA

Ez da emisiorik izango

LARUNBATA

9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

29 Ostirala	2 Astelehena	3 Asteartea	4 Asteazkena	5 Osteguna	6 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete	13.35 Astebete (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Gonbidatua: Unai Iturriaga	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Musika 13.35 Antzerkia (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel	13.35 Musika (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Kukaratxa Motel	Ez da emisiorik izango

JUBAR

- Ate eta persiana automatikoak
- Mantenimendua
- Urrunerako aginte tresnak
- Seguritate persianak
- Sarbide kontrola

Kataide Poligonoa, 18 • ARRASATE • Tel.: 79 10 20 • Faxa: 79 08 17

Nerea Bengoa Fdez. de Campinun osteopata

Zirugia eta medikuntzan lizentziatua GREMMO-en osteopatian diplomatua
Bizkarreko minak, sorbalda, lunbalgiak, zerbikalgiak, zefaleak, bertigoak...

Kontsulta Arrasaten, txanda hartzeko deitu
989-58 66 89 tel. mugikorrera
(Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik- 13:00ra eta 15.00tik 19.00ra)



Santa Zezilia eguna izan zen joan den astean, musikarien zaindariaren eguna. Arrasateko musikariek ospakizunak aste honetarako utzi zituztenez, fotozaharra ere astebete beranduago.

Arrasateko Udal Banda argazkian, Elorrioko jaietan.

Argazkikoak honako hauek dira, ezkerretik esku-mara eta goitik behera: Adolfo Gomez, Jose M^a Guridi, Miguel Sampedro, Antton Azkarate, Jose Luis Mendietta, Faustino Balantzategi, Txomin Agirreurreta, Jesus Azkarate, Ino Sanz, Luis Zubillaga, Jose M^a Oruna, Lorenzo

Oruna, Rafael Ortubay, Ignacio Olazabal, Jose Arregi, Pako Aranbarri, Antton Aranbarri, Manolo Sanz, Jabier Lamarain, Bixente Azkarate, Jose Luis Abasolo, Eusebio Gomez, Gabriel Mendizabal, Juan Jose Garmendia, Jose Exposito, Adolfo Gomez, Rafael Escudero, Evaristo Celemin, Rufo

Arambarri, Justo Munarriz (zuzendaria), Luzio (alguazila), Mariano Azkarate, Fermin Aranbarri eta Carlos Andres.

Urtea: 1953.

Argazkia: Bixente Azkarate.

Informazioa: Bixente Azkarate.




Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



HEMEN

gozotegia

GAO kafeak

Kroissanteria

Sebero Altube, 8 • Tel.: 79 94 99 • ARRASATE



ARRASATE ERDIALDEKO
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Arrasate erdian, Deba Garaiko merkatalgunerik handienez, erosketak izen propioa du.




Azaroaren 18tik
urtarrilaren 4ra arte
Arrasate erdiko 100
komertzio eta zerbitzuz
AUTO BAT dohainik
lortzeko aukera ematen
dizute.

Etorri eta egiazta ezazu!!!

Erdialdea bisitatzen duzunean
aparkalekua erabil ezazu.
Denok eskertuko dugu.

Altzarietan erreferentzia puntua.



Htze
mobiliario y
decoracion


- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



Ferrerias, 17 (Alde Zaharra) • Tel. eta faxa: 79 03 17 • ARRASATE

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



FAGOR sukalde altzaritan

eskaintza indartsuenaz gozatu

Eskaintza epea: 1.996.eko urriaren 15etik abenduaren 15era bitartean.

DESKONTUA

+

OPARIA

%
20

Fagor sukalde altzaritan.



Ciclón Plus

berria

CICLON PLUS-ekin: solidoak zein likiduak zurrupatzeaz gain, ur hotza/beroa/edota lurrunarekin garbitzeko aukera izango duzu

P.V.P.: 80.000 pta.

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42